



Viela Osasunako
prestatzaile fisikoa

32

Joshe Viela iruritarra duela bi urte hasi zen Osasuna futbol taldeko profesionalekin prestatzaile fisiko lanetan. Lehen mailako jokalariekin iaz hasi zen.



Auxtin Zamora,
Senpereko olerkaria

03

Euskal olerkigintzari lotutako Hatas Elkartearen sortzaile izan zen Auxtin Zamora. Euskal Herri osoan ibiltzen da olerki tailerrak bultzatzen eta olerkiak biltzen.

2007ko martxoaren 1a • XXVII. urtea
www.ttipi.net

SINDIKATUEN BALORAZIOA

04 Eskualdeko lantegi haundi batzuen egoera zalantzan



EZ GALDU AUKERA HAU

HARTU DIGITAL+ ESKAINTZA PAREGABE HAU APROBETXATUZ



Alta-kuota
Antena eta instalazioa

0 €

CANAL+
3 HILABETE ARTE
DOAN



LIGAKO JARDUNALDI BAKOITZEKO PARTIDA BAT DOAN BI HILABETEZ

Estreineko zinerik hoberenarekin, kirol guztiarekin, telesail eta dokumentalik prestigiotsuenak eta orain Apirileko Feriako zezenketekin.

ZURE INSTALATZAILEAREN ESKAINTZA ESKLUSIBOA

DIGITAL+



BORTZIRIAK, S.L.

Bidasoa. 45 · BERA · 948 631 091 · 948 630 377

PROFESIONAL ETA BRIKOLAIA BAINO GEHIAGO NAHI DUTEN GUZTIEI ZUZENDUTAKO


BURDINDEGI BERRIA



ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
8:00-13:00
14:30-20:00

LARUNBATETAN
08:00-14:00

Tfnos: 948 630 492
San Esteban, 17
31780 BERA



DATUAK...

- Euskal olerkigintzari lotutako Hatsa Elkartearen sortzaile izan zen Auxtin Zamora. Duela 18 urte sortu zen elkarte Senperen, eta geroztik, Iparralde zein Hegoaldera hedatu da.
- Azken bederlatzi urteotan, euskal olerkarien lana batzeko asmoz, Hatsaren Poesia izeneko bilduma argitaratzen du urtean bi aldiz. Apiriril hasieran izanen da hurrengoa.
- Eskolaz-eskola ere ibiltzen da Auxtin, olerkigintza haurrengana hurbiltzeko.

Auxtin ZAMORA *Hatsa olerkigintza elkartekoa*ELKARRIZKETA
ELKARRIZKETA

«Pertsona bakoitza poema bat da, eta poesiaren mamia libertatea da»

Gurutze PIKABEA

Noiz eta nolatan sortu zen Hatsaren Poesia olerki bilduma aitzinera eramateko eegitasmoa?

Euskal olerkariak, bat hemen bestea han, nonbati gizartearen erdian galdak zirela iruditzen zitzaidan, eta ez zutela elkar ezagutzen. Hala, ezagutzen nituen euskal olerkari guztiei olerki bilduma baten bitartez lotura bat egiteko gonbita egin nien. Lehenik, Hatsaren Poesia Eguna ospatu zen Senperen 1999an, eta 40 bat olerki aurkeztu ziren. Aurten Euskal Herri osoko 120 bat olerki idazlek hartuko dute parte bilduman, eta beste 200 bat haur eta gaztetxok, taldeka.

Liburuetan eskoletako gaztetxoekin lanak ez ezik, herritar arrunt eta idazle ezagunen izenak ageri dira...

Bai, ez dugu salbuespen edo sailkapenik egin nahi. Aitonak, amonak, haurrak, idazleak, idazle ez direnak, ezagutuak eta ez ezagutuak... Denentzat bada tokia liburu horretan. Erraten da pertsona bakoitza poema bat dela eta hori egia dela iruditzen zaigu. Gizaki bakoitzak irudimen pertsonala du bere baitan, berea bakarrik

«Helburua, nehor baztertu gabe, ahal bezain bat euskaraz idazten duten olerkari guztien olerkiak bilduma batean azaltzea da»

dena, amets egiteko dohain berezia, beste nehor egiten edo idazten ez dakien sortzeko ahalmen propioa. Azken batean, poesiaren mamia libertatea da. Helburua, nehor baztertu gabe, ahal bezain bat euskaraz idazten duten olerkari guztien olerkiak urtero liburu batean azaltzea da.

Hemen inguruko jende aunitzek parte hartzen du?

Gu ezagutuak izan bagara, ahotik berrira pasatutako mezuengatik izan da batez ere. Baina duela hamar urte, Senperen gure herriko berriak mugaz bi aldetara agertu nahian ginelarik, Ttipi-Ttaparen bitartez, Larrun inguruko eskualdeari, Malerreka eta Bortzirietako jendeari lotu ginen. Nafarroa iparraldeko txoko honetako olerkari berri asko agertu zitzaizkigun.

Zein asmorekin sortu zen Hatsa Elkartea?

Hastapenean bere helburua poesia-

ren munduan, edozein espresio artistikoaren bitartez norberak bere buruaren ezagutzea zen. 1999an euskarak poetika munduan funts handia zuela ikusita, eta denbora berean bere baztertze eta galtzea dramatikoa sentitzen ginuelakoz, gure ardurara osoa euskaraz adierazten den olerkigintzari ematea erabaki genuen.

Poesiak eta hatsak zer iradokitzen dizute?

Hatsa hartzea, bizidun guztiok egiten dugun beharrezko egintza fisiologikoa da. Hatsa hartzen dugularik, denena den airetik dugu oxigenoa iresten, eta berriz denena den aireari itzultzen. Eta berdin poesian. Euskal gizarte osoarenak diren hitz, sentimendu eta pentsaerak hartzen ditugu eta poesiarekin, geure berezitasun eta sormenak gizarteari ordaintzen.

Etorkizunera begira, zein asmo dituzu?

Osasuna dudana arte segituko nuke urteko bildumarako olerkiak biltzen, haurrekin tailerrak animatzen. Hatsaren Poesian parte hartzen dugun guztiek, etorkizunean hasitako bidea aurrerat eramanen dugula espero dut.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Enpresa Batzordeak deituta, Condesaren egoera salatzeko elkarretaratzea egin zuten otsailaren 22an Lesakako Herriko Etxearen aitzinean.

SINDIKATUEN BALORAZIOA

Eskualdeko lantegi haundi batzuen egoera zalantzan dago

Enpresa haudienak zer errana ematen ari dira azken aldian. Aunitzen kasuan egoera kolokan dago eta horrek ezinegona sortu du sindikatuen eta langileen artean. Arcelor-Mittal, Condesa Taldea eta Alcoa dira sindikatuen hitzetan kezkarik haundiena sortzen dutenak. Hitzarmenik gabe batzuetan, hitzarmenarekin baina kolokan bertzeetan. Nafarroa ipar-mendebaldeko lantegi handietaz aritu zaizkigu LAB, ELA eta UGT sindikatuetakordez kariak.

Gurutze PIKABEA

Zalaingo tubo lantegia eta Lesako lantegiaren historia luze eta korapilotsuak badu segidarik. Joan den urtean Arcelor-en akzio gehienak Mittal multinazionalak erosi zituen, aldaketa ugari izan dira geroztik. Hemendik aitzinera Arcelor Mittal Europako hainbat lantegirekin talde berean arituko da. Hori, ordea, apirilean izanen da, eta horretarako estatu desberdinetako langileen ordezkariak joan dira martxoan Bruselara, estatu espainiarretik 4 ordezkari, tartean Aurelio Gutierrez (ELA Lesaka) ere bai. Bien bitartean, ordea, zalantza da sindikatuek duten kezkarik nagusiena, enpleguari eta industria planari dagokiona. Hasieratik kezka hartu zuten Arcelor eta Mittal enpresen bat egitea sindikatuek. Mitxelorena LABeko or-

dez kariak aipatu duenez, «2006ko urri- an 46 behin behineko langileei kontratuak bertan behera utzi zikioten. Aurten go otsailean ia erdiak berreskuratu dira, baina baldintza kaskarragoetan; bajaran edo oporretan daudenen ordezkariak bere horretan segitzen du».

Zalaingo tubo lantegiari dagokionez, Condesa taldearen esku dago orain. Enpresa batzordea osatzen duten sindikatuak hasieratik ez zuten begi onez ikusi, eta gaur-gaurkoz 2006ko hitzarmenari buruz ez dago akordio-rik. Lanuzteak eta mobilizazioak egiten dira azken hilabeteetan, eta sindikatu batzuk zein bertzeek, egoera beltz ikusten dute. ELAko Jose M^a Arribillagaren hitzetan, «negoziaziorako boroa gogorra izaten ari da». Bide beretik jo du UGTko Patxi Altxuk ere:

Julen MITXELTORENA**LAB**

Arcelor-en azken boladan izan diren aldaketekin, zalantza eta no-raeza da nagusi langileengan.

Mittalek akzioen gehiengoa hartu zuenetik zalantzak gehitu egin dira. Espediente zantzuak ere badaude lantegian, eta egoera ho-

rrek kezka larritu bertzerik ez du egiten. Zuzendaritzak argi eta garbi azaldu beharko du zein den bere planteamendua. Zalaingo lantegiaren kasuan, mobilizazioetan sartuta gaude. Langileek ez dute hobekuntza berririk aldarrikatzen, errespetua eta tratu duina bertzerik ez dute eskatzen. Enpresak errespetatu dezatela dugun hitzarmena, ditugun lanorduak eta gure negoziatzeko ahalmena. Eta Alcoren kasuan, Txinako ekoizpenak zuzenean ukitzen du bertako egoera. Erretiroa hartzeko adina dutenak lantegia uzteko eskaintzak jasotzen ari dira. Bien bitartean, hitzarmena negoziatzen ari dira, eta egoera honek zaildu egiten du negoziaketa objektiboa egiteko aukera.

“Zalainen langileek ez dute hobekuntzarik eskatzen, errespetua eta tratu duina baizik”

Jose Mari ARRIBILLAGA**ELA**

Enpresa batzuk ongi dabilta eta hori da Baztango Benito Menni, Martiko, Savera eta Funveraren kasua. Arcelor-Mittaleta Condesari, ordea, kritika eginen nioke. Zoritzarrez enpresa horietan ez da negoziatzen. Akordio markoak

egiten dira baina erabakiak Europa mailan hartzen dira eta berdin aplikatu Lesakan eta Gijonen. Erabakiak Lesakan hartuko balira bertzelakoa izanen litzateke. Globalizazioak eta neoliberalizazioak kezkatzen naute ni, erabakiak hartzeko eta negoziatzeko aukerarik ez dagoela erakusten baitute. Merkatu aldaketak eta ber-tze istorioak mehatxuak bertzerik ez dira. Lesakan ez badira nonbati eginen dira, ez? Kontua da negoziazioak gure kasuan Lesaka eta Euskal Herria ezagutu gabe egiten direla. Multinazional horiei bost axola zaie 200.000 langiletik mila gehiago edo guttiago izan. Nagusi eta enpresa mota aunitz pasatu dira, baina eskatzen dugun hurbiltasunik inoiz ez.

“Condesa eta Arcelor-Mittal lantegien kasuan, zoritzarrez ez da negoziatzen”

Patxi ALTXU**UGT**

Enpresa haundi batzuetan mugitu beharra dago, etorkizuna beltz baitago. Zalainen kasuan, kaxkar-kaxkarra da. Ez gara hitzarmen bat sinatzeko gai, eta horretan denbora aunitz galdu dugu. Condesak erosi duenetik, lantegiak okerre-

ra egin du. ETT enpresetako langileak ere sartu dituzte, eta beraz, garbi dago egoera beltz dagoela. Ez gara denak batera benetako egoera zein den konturatzen. Arcelor ere murriztu samar dago. Mittalek erosi zuenetik okerrera egin du. Arazoa zenbat eta hurbilago eduki hobe da, baina kasu honetan, multinazionalaz ari gara, eta erabakiak urrun hartzen dira. Gure lantegiak nahi duen diru kopurua ematen ez badio, ez zaio aunitz axolako bertan behera uztea. Halere, nik uste egoera larri horri aitzin egiten ahal diogula. Eta Aranoko Heinnekenen egoera ere beltza dela erranen nuke, epe labur eta ertainera ez da inbertsiorik egin eta hori ez da seinale ona.

“Zonaldeko enpresa haundi batzuetan mugitu beharra dago, etorkizuna beltz baitago”

«Condesaren egoera kaxkar-kaxkarra da». Gisa berean, Condesan ETT -eta-ko langileak ere sartu dituzte, eta bide hori «nahiko eskasa» dela salatu du UGTk. Joan den otsailaren 14an Lan Ikuskaritza joan zitzaie, eta LABek azaldutakoaren arabera, hitzarmena eta bertze eskubideak errespetatu ezean, zigor txostena zabalduko ziola ohartarazi zion zuzendariari, eta «edozein zalantzaren aitzinean, bertze urraketarik egin baino lehen berari deitzeko».

Berako Alcon, Txinako ekoizpena Europako merkatuan sartu izanak bete-betean eragin du bere produktioan. LABen arabera, «enpresa honek zuen birtualitate nagusia bere ezkutuko ekonomia zen, hainbat eta hainbat etxetako sotoetan lanean aritzen ziren. Baina orain minimoetara jautsi da lan mota hau». Enpresan 98 langilek dute lana, baina erretiroa hartzeko adinera hur-

biltzen ari direnak bertzelako eskaintzakhartzen ari dira lantegia uzteko. Orain hitzarmena negoziatzen ari dira.

Bertze lantegien egoeraz ez dute hauetan bezalako kezkarik adierazi sindikatuek. Halere, LAB Berako Funveraren inguruan ere mintzatu zaigu: «Ballesta merkatuaren aldaketak direla eta, lantegiak lan gorabeherak izaten ditu. 2006an denboraldiko espedientearen mehatxua egin zuen zuzendariak, nahiz eta espedienterik behar ez zela ikusi gerora. Bertze batzuetan, berriz, lan karga dela eta korreturnos erara jartzen dira zenbait instalazio. Aldaketa horiek egoera ezegonkorren seinale dira». Martxoaren hondar aldera hauteskundeak izanen dira lantegi honetan.

UGTk, bere aldetik, Aranoko Heinneken Españaren egoera ñabar dagoela dio, inbertsio berririk planteatzen ez delako.

UGT SINDIKATUAREN ESKAERA

Eskualdeko industriaren garapena indartzeko asmoz, UGTk Legasa eta Doneztebe artean dagoen industriagunean beharrezkoak diren neurriak hartzeko exijitu dio Nafarroako Gobernuari. Lur horiek 20.000 metro koadro dituzte eta Arcelor lantegiarenak dira. UGTk jakinarazi zuenez, «Bazta-Bidasoa inguruan enpresa berriak jartzeko interesa dago, zehazki industriagune horretan, eta enpresa horiei behar duten azalera ematen ez bazaie Aragoira joanen dira». Hartara, Nafarroako Gobernuak Arcelor-i bere industria proiektua handitzeko exijitzea nahi du UGTk, lanpostu gehiago sortuz. Bertzela, Arcelor-ek lurrak saltzea proposatu du, azalera horietan industria proiektu berriak garatu ahal izateko.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemakalariak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Rakei Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelare elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 e
Espainia	32 e
Sara (edantegia-okindegia)	40 e
Ipar Euskal Herria	52 e
Europa	52 e
Amerika	110 e
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 e



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Lesakako alkatea?

Azken bolada hone tan harrituta gelditen ari naiz hainbat tokitan irakurtzen ari naizen go-goeta politiko eta irtizi ezberdinekin. Lehengo hilabetean, gure herriko alkatearen sinadura zeraman bat irakurri nuen (urtarrilaren 12ko *Diario de Noticias*). Laburbilduz eta sinplifikatuz, ezker abertzalearen aurka erabiltzen ari diren mezu horietako bat bertzerik ez zen gutuna. Hala, bi mezu garbi helarazi nahi izan zituen Lesakako alkatea den Juan Fermin Mitxelenak bere idatzian; batetik, Lesakako Olenzeroren lehiaketa aitzakia hartuta, preso eta iheslariak pairatzen dituzten eskubide urraketak salatzea eta bortizkeria hau jendarteratzearekin ez datorrela bat (zilegia dena, baina aitzakirik gabe, noski). Baina ez da hor gelditzen, eta nork daki zer indarrek eraginda, gure senide, lagun eta herrikide diren preso eta iheslariak etxean egon behar dutela diotenen aurka irainak jaurtitzen ditu idatziaren lehen zatian. Bigarren zatian, Olenzero egoera politikoarekin lotu (...) eta irakurketa politiko bat egiten du: ezker abertzalea egungo egoeraren erantzulea dela dio.

Zaila da hitz guttitan egoera kokatzea eta irakurleak ondorio objektibo batzuk ateratzea hainbertze intosikazioaren artean; batzuk gauza bat, bertzak kontrakoa... ni erralitatearen klabe batzuk age-rian uzten saiatuko naiz, gero norberak bere on-

doriok atera ditzan.

Olenzeroren inguruan erran, zazpigarren urtez egun guztiko egitaraua antolatu dela. Gure herrian hain sustraiturik dagoen ohiturari jarraituaz, goiz-goizetik Olenzero bizkarrean hartu eta ilunabarra arte kalez-kale kantari eta eskean ibiltzengara, Lesakako bertze kuadrila aunitz bezala. Urtetik urtera geroz eta jende gehiago gehitu da amnistiaren aldeko Olenzeroren ondoan egun hori pasatzera; batzuk egun guztian, bertzak arratsaldean eta bertzak lehiaketan parte hartuz. Izugarrizko babesa jasotzen du Olenzero honek Lesakako herritar aunitz eta aunitzen partetik, urtetik urtera gorantz doan babesa. Lesakatik kanpo ere oihartzun haundia hartzen ari da, ikusi bertzerik ez dago aurten-goan komunikabide ezbedinek eman dioten tratamendua. Hau horrela izanik, ez al da arraroa Lesakako alkatearen balorazioa? Preso eta iheslariaren eskubideen alde egonik bera, zergatik horrelako amorrazioa babesa gero eta haundiagoa denean?

Guztia nahasiaz eta urduritasun zantzu nabarietan, Olenzero eta egoera politiko lotzen saiatu da. Bere ustetan, prozesuak porrot egin du eta horren erantzulea Ezker Abertzalea da. Ez gara urrutiegi joanen, erralitatea hagitze bertzekoa dela erakusten duten adibideen bila. 2006an, Igor Angulo eta Roberto Saez, euskal preso politikoaren heriotzek egoera politikoak une larri batera eraman

zuten. Horren aurrean, Ezker Abertzalea min eta amorru haundiarekin kalera atera zen, bertze gauza batzuen artean, konponbidea inoiz baino beharrezkoagoa zela adieraztera. Horrela egonik egoera, prozesu demokratiko bat bultzatzeko helburuarekin, Euskadi ta Asatasuna erakundeak su-eten iraunkorra iragarri zuen egun batzuk beranduago. Hortik aurrera dinamika eta mobilizazio ugari egin dira: OHDk Bilbon eta Iruñean buruturiko manifestazio jendetsuak, (90.000 lagun) preso eta iheslariaren aldeko manifestazioa Donostian, sudeterminazioaren aldeko mobilizazio eta indar metaketarako ekimen ezberdinak, baldintza demokratikoak eskatzeko mobilizazioak... guztietan parte hartu du Ezker Abertzaleak. Non zeuden eta zer egin dute Lesakako alkatea eta bere alderdiak, prozesu demokratiko bat helburu dituzten ekimen guzti hauen aurrean? Zergatik egiten diote uko solasteari (autodeterminazioaz, prozesuaz, preso eta iheslariaren egoeraz, herriko egoeraz) behin eta berri Lesakako alkateak eta bere alderdiak? Prozesuaren aldeko zein dinamika eraman ditu aurrera J.F Mitxelena buru duen Lesakako Udalak?

Gure herria, zenbait "agintari" eta "politikoren" gainetik, mende mendeko pairatzen ari den gatazka politikoak modu demokratikoan konponatzeko ahaleginetan dabil. Ez du porrotik egin eta ez du egiten ere.

Atzoko aukerak hor dardelako gaur ere, herriaren konponbide nahiak dira horren adierazle. Erantzukizun politikoa dugunok, arduraz jokatzea behar dugu; hitz egin behar denean hitz egin eta herritarren eskakizunak kontuan hartuz. Gatazka politikoak gainditzeko prozesuetan ez dira opariak esistitzen; borroka, lana eta justizian oinarritutako bakea lortzea lehenetsi behar dira. Opariak, klientelismoan eta entxufismoan oinarritzen diren politika eredu antidemokratikoen kontuak dira. Zoritxarrez sobera ezagunak gure artean.

Iban Maia Ormazabal
Herria Aintzinerak

Negar egiten duena, ama

Kanpainaurrean sartuak gaude dagoeneko, Herria Aintzineraren panfletoa ere jaso dugu etxean, baina aitzineko jarrerarekiko aldatetarik gabe. Beti bezala, gertatzen ari denaren erru guztia bertzeek dute; erretako autobusez atzendu gara, kutzazainak erretzeagatik hutsu behar izan dituzten etxebizitzetaz —ondorioz, bizilagunak familiakoengana edo hoteletara joan behar asteetarako— pistolen lapurretat, eta abar.

Ikuspegi ekonomikoetik, Herria Aintzinerak fidanzak aipatzen ditu, baina dituzte aipatu Ogasun Publikoak ekintza bandaliko horiek direla eta ordaindu behar izan duela. Lesakan bakarrik pintadak garbitzen eta ondasun publi-

• IRAKURLEAK MINTZO •

koa konpontzen, 30.000 euro gastatu ditugu.

Eta gure herriari dagokionez, ez saiatu herriarrak nahasten: lehengo kuartelaren erakina ez zen nahikoa Kultur Etxea izateko.

Salatzen duten Udaren gestio ez argia, irri-garria da: legealdi guztian hamarnaka bilera egin dira, herri mailan zein eskualdean, Agenda 21 tarteko gai horiek lantzeko asmoz, baina bere presentzia eta parte-hartzea nulua izan da.

Inork ez zituen udal-letxetik bidali, kontua da ez dituzte jokoaren arauak jarraitu. batzordeetan parte hartzeko ateak ireki genizkien, baina ez zuten lan egin nahi izan. Badakigu itxuratu gabe eta instituzietan egon gabe zaila dela lanean aritzea, baina ez da gure errua.

Hirigintzako espekulazioak ere salatu dituzte berriz. milagarren aldiz oroitarazten dizuet Lesakako Planean euren botoa aintzat hartu zela, eta ez dugu gauzatu ber-

tzerik egin.

Ez dugu polemika honenkin jarraitzeko inolako asmorik, baina horiezker abertzaleak gure aurka egiten duen kanpainaren arabera izan da; argi dagoena da ez dugula onartuko azken lau urteotan Lesakaren alde deus egin ez duten pertsonen kritikarik.

Kultur Etxearen inguruan urratsik eman baino lehen, Kultur taldeek, sozietateek eta elkarteek Kultur Etxearen kokalekua eta eraikuntza erabakiko dugula jakitea nahi dugu.

Bukatzeko, erran ilusioz gaudela heldu diren hauteskundeetan zintzo lan egiteko erabakia hartu dutelako; ailegatzen diren eta zintzilik dauden gai guztiak eztabaidatuko ditugu. Hori bai, espero dugu gehiengoaren erabakiak errespetatuko dituztela, hagitz demokratikoak ez diren lehenengo bideak hartu gabe.

Juan Fermin Mitxelena
Lesakako alkatea

Zuzenketa

Aitzineko alean, Baztango kronikan «UPNk Virginia Aleman alkateari senitarteko bati laguntzeko bere ahalmenez baliatu zela ere egotzi zion» berria idatzi zenuten eta ez zen horrela izan. Prentsaurreko horretan ni egon nintzen eta zuek idatzi duzuen ez da guztiz egia. UPNk Virginiak eta nik (Miren Aleman) egiten ari garen etxea kritikatu zuten. Virginiaren ahalmenez baliatuz gure etxea egiteko aukera dugula egotzi ziguten.

Miren Aleman Arrastio

Magnesita meategia egitasmoa

Magna enpresak lur gaineko meategi bat irekitzeko asmoa agertu du Artesiagako inguruan, Kinto Real mendiko mugan. Egitasmo honek eztabaida bizia piztu du Baztanen eta bertako Junta Nagusiak atzera bota zuen aitzineko bilkuran.

Magnaren egitasmo honen ikerketa eta ingurugiro ekarpena aztertu ondoren, nola INGEAN aholkulari den balorazioa aztertu ondoren:

Ekonomikoki ikusten diren abantaila garrantzitsuenak Baztango bailarandako laburbilduz, hogeita hamar lanpostu berri hamabost urteko iraupenekin eta zenbait diru laguntze Baztango Udalari litzake.

Eragozpen larrienak, nabarmen ingurugiroaren hondatzeak dira, bereziki: Lur higiketa (24 milioi m³ tik goiti) LIC izenpe-tu lurraldean (premia handiko lurraldean, naturaren babes bereziakin) ondoriozko hondatze larriak ingurugiroan izango lizazke. Artesiaga eta Eugi tarteko bideak aparteko aldaketa izanen luke Kinto Real tartean dagola, aurreikuspen egunero 25 tonako 11 kamioi orduko ibiliko dira bide huntan.

Baztango Aralar taldeak aurkeztutako egitasmoak aztertu ondoren, epe laburreko eskaintzen diren lanpostu berrien ze-

renda murrizak inolaz justifikatzen ez duela horrelako ingurugiroaren suntsiketa adierazten du.

Nolanahi, Aralar taldeak uste du hartzen den erabakiak beharrezkoa duela informazio zabal eta sakona eta bideratu izatea baztandar guzietan. Eztabaida zentzu eta zabal bat bultzatu baztandar guzien tartean bideratzeko eta baloratzeko aldeko onurak nola kalteak irizpen zabal bat lortzeko.

MartinGarde
Baztango Aralar

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokiak izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.



SARNOA
gastronomia denda

Er. de Artagoia 25 beko
47100 Bera (Navarra) T. 948 63 08 99
www.saroba.net



HER, B, IBO
ETXEBE
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T. 0559542519
Maison eta Véronique
KARA



J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta
barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 • LESAKA



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ERREPIDEAK

Hauteskundeen ondotik erabakiko dute N121An eta A15ean bidesaria jarri edo ez

Gipuzkoako alderdi gehienek bidesaria nahi dute; Nafarroak ez du eztabaidan sartu nahi

ttipi-ttapa

Otsailaren 14an bide nagusietan bidesariak jartzearen alde agertu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Ttipi-Ttapak hartzen duen eskualdeari dagokionean, Igantzi eta Irun arteko N121A errepidea eta Leitzarango A-15 autobidea izanen dira eragina izanen dute errepideak.

Batzar Nagusietan ordezkariak duten alderdi gehienek, PPK izan ezik, errepideen erabiltzaileei kobratzea defenditu zuten. Hala ere, hauteskundeak pasatu ondotik erabakiko dute bidesariak jarriko dituzten ala ez. Aditu talde batek Gipuzkoako bide nagusietako bidesariak buruz egindako txostena izan zen otsailaren 14an Batzar Nagusietan aztertu zutena.

Europako Batasunak joan den urteko maiatzean onartutako 2006/38/CE arauak 2012tik aitzinera errepide nagusitik dabilzan



ARTXIBOKOA

Igantzi eta Irun arteko errepideko lanak berritu ondotik, bidesaria jartzearen alde daude Gipuzkoako Batzar Nagusiko alderdi gehienak, Endarlatsan. Eskualdeko errepideei dagokionez, Leitzarango A-15 autobidea da erabiltzaileei kobratzeko aukera duen bertze errepidea.

ibilgailu astunei kobratzea behartzen du. Hasierean kamioiei ezarritakoa neurria izanen bada ere, gerora, oraindik zehaztu gabe dagoen epean, gainontzeko ibilgailuei eraginen lioke.

Adituen txostenean oinarrituz, N121A errepidean —berritu ondotik— Erdarlatsan jarriko lukete bidesaria, eta A-

15 autobidean, berriz, Berastegi (Gipuzkoa) parean. Aipatutako bi errepideez gain, N-1 eta N-632an ere bidesariak jartzea ere aurreikusia dute.

NAFARROAKO GOBERNUAK BIDESARIEN POLITIKA EZ DUELA ALDATUKO DIO Gipuzkoan bidesariak

jartzeko eztabaida ireki izanagatik ere, Nafarroako Gobernuak ez zuen eztabaidan sartzeko asmorik agertu. Alvaro Miranda Herri Lan, Garraio eta Komunikabideetako sailburuak adierazi zuenez, «Nafarroako Gobernuak ez du bidesariei buruz duen politika aldatzeko asmorik». Gaineratu

zuen, Europako Batasunaren araua egokitzeko Espainiako Sustapen Ministerioak legea egin beharko zuela.

N-121A BERRITZEKO LANAK

Urtarrilaren 19an Gipuzkoako Diputazioak egin bazuen, hilabete Nafarroako Gobernuak otsailaren 19an Bera-Endarlatsa errepidea berritzeko lanen kontratazioa baimendu zuen. Aipatu bide zatiak 2,5 kilometro ditu eta 18.133.939 euro erabiliko dira berritze lanetarako. Eraberritzeen ondotik, hiru errail izanen dira Erdarlatsatik Bera-arako bidean.

ASTE BAKARREAN BI ISTRIPU

Igantzi Irunerako bidea istripu amaigabean lekuko izan berri da berriz. Otsailaren 12tik 16rako astean bi istripu gertatu ziren, biak ere kamioiak tarteko sortu ziren eta auto ilarak sortu ziren.

BERA

Drogen mendekotasunei aurre egiteko gidaliburua

Udalak Askagintzarekin batera egin duen proiektua da

Amaia eta Ainhoa

Berako Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordeak komunitatean drogen mendekotasunei aurrea hartzeko *Bera herri plana* gidaliburua aurkeztu zuen otsailaren 14an. Askagintza elkarteke Txus Congil eta Udaleko alkateorde Jon Abril aritu ziren prentsaren aitzinean. 2006ko martxoan aurkeztu zen drogomenpekotasunaren prebentziorako Plana eta geroztik, eragile, herritar eta sektoreko profesionalak euren ekarpenak eta zuzenketak egin dituzte. Udazkenean planaren segimendurako batzordea osatu zen eta hor parte hartzen dute Askagintzako eta Udaleko kideekin batera, osasun eta hezkuntza arloko profesionalak, gurasoek, eta gaiarekiko interesa duten hainbat pertsonak. Orain, plan osaren laburpena biltzen duen gidaliburua argitaratu da. 1.500 ale argitaratu dira, eta Berako etxe guztietan bana-

tuko da, doan. Liburuska euskarazko eta gaztelaniazko edizio bako- rrean argitaratu da, eta plan osoa biltzen duen CDa ere darama erantsita, gaiarekin lotura duten bertze dokumentu batzuekin batera. Hor ageri dira plana gauzatu gero garatu beharreko programa eta proiektuak. Plana 2006-2010 urte arteko proposamena da eta 52 irakasle, 500 ikasle eta 50 bat guraso parte hartzen ari dira aktiboki.

Nekazaritza ekologikoaz ikastaroa

EHNEk Cederna Garalurren laguntzarekin martxoaren 9tik 24a bitarte nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa antolatu du. Ortziraletan 16:00etatik 20:00etara eta 9:30etik 13:30era Jamotenean emanen dira eta barazki konterbera eta elikadura produktu jasangarri- entzako metodoen in- guruko ikastaroak iza-



PARGAZKIA: GOIKO

Jende aunitz inauterietako ekitaldietan

Helduek ez ezik, inude eta artzain gaztetxoagoek ere euren joan-etorriak egiten dituzte herriko karriketean. Azken hauek *ortzegun gizen* arratsaldean atera ziren eta nagusienak igande goizean.

nen dira. Izen ematea EHNEk Elizondon duen bulegoan egin behar da (948 581302). Ikastaroa doan da.

Sagrario Goñi «Reyno de Navarra» sarirako proposatua

Otsailaren 21ean, Nafarroako Turismo Kontseiluak, modalitate ezberdinetan Turismoko «Reyno de Navarra» sariak jasoko dituztenen izenak eman zituen. Horien artean, Berako Sagrario Goñi proposatua izan da. Sari hauekin turismo sektorearen garapeneren alde lan egin duten pertsona eta entitateen merituak nabarmendu nahi dira. Sagrario Goñik Olaseneko Borda turismotexea dauka, Hiruak Bat Elkarteke lehen- dakaria da, Bertiz Par- tzuergo Turistikoko ki-

dea, Nafarroako Turismo Elkarteke Federa- zioeko lehendakaria eta Asetur Kontseilu- ko kide ere bada (Espainiako Landa Turismo Elkarte). Nafarroako Turismo Kontseilu- aren arabera, bere ibil- bide eta borondatea- rengatik, landa turis- moa ulertzeko modu- agatik eta Nafarroa hel- muga turistikoa bezala finkatzearen alde egin- dako lan guztiarengatik ongi merezia du sa- ria. Sari hauek apiril- an Baluarten ospatu- ko den Turismoaren Galan banatuko dituz- te

Merkaritza gunearen proiektua atzera

Gipuzkoako promo- tore batek Zalain ja- tetxearen ondoan, Condesarena zen ze- lai handi batean, mer- kataritza zentroa, in- dustria pabiloiak, ho-

tela eta gasolindegia egiteko proiektua aur- keztu zuen Udalean. Udalak industria gune- ko erabilpenak ez di- tuelako betetzen ez du onartu proiektua, mer- kataritza zentroa batez ere. Merkaritza zentroa egitea herriko komer- tzioentzako kaltegarria izan daitekeela eta, le- henago Ibardineko mer- kataritza gunearekin egin zen bezala, Udalak ez du onartu.

Datu basea webgunean

Nafarroako Gober- nuko Toki Administra- zioak eta 012 telefono zerbitzuak erabiltzen duten datu base zabala on-line kontsulta dai- teke www.berakouda- la.net helbidean. Zine- marako sarrerak, hel- bideak, lanpostuak, ga- rraibideen ordutegiak eta abar kontsultatu ahal izanen dira «Kon- tsultak» klikatuta.

Lanchas
 PARKETAK - TARIMAK
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
 ESTALDURA OROKORRAK
 Bera - Tfnoak: 948 630 735 - 607 406 781

ALBERTO RETEGI
 abokatuak
 abokatuak
 © 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

LABE ZAR
 Tel: 948 631 076 - BERA

LESAKA

Giro ederrean joan dira aurten ere inauteriak

Zako-zaharrek hainbat ikusle eta kamera artean egin zuten ohiko ibilbidea

Aitor AROTZENA

Giro ederrean joan dira aurten ere inauteriak. Larunbat arratsko lehen mozorroak euripean ibili baldin baziren ere, igande eta asteleheneko hitzordu nagusiak errespetatu zituzten eguraldiak. Igande arratsan zakozahar talde handia ibili zen karririkaz karrikako ohiko ibilaldian. Urtero bezala, ikusmin handia piztu zuten eta argazki eta telebista kamara ugari izan zituzten zaindari. Aurten Zaragozako produktora bateko langileak ere etorriak ziren erreportajea grabatzeko asmoarekin eta plaza eta Antoiu inguruan argi handiak paratuak zituzten, grabaketa lanak hobeki egiteko.

Astelehen eguerdian karrozak ikusgai izan ziren plaza inguruetan. Irain eskolako kaldere-ro eta ijitoak, Tantiurmairu ikastolako Olinpiadak, paellako osagaiak bere paelleran, moto tailerreko langileak, pailazoak...

Plazan eta karriketant mozorroak ibiltzen ziren bitartean, baserri auzoetako ibilbideetan zebiltzan Fraindarrak eta Goitarrak. Zenbait urtez jende gutti ibili da bi talde hauetan, baina badirudi berriz ere indartzen eta belaunaldi berriak sartzen ari direla. Gainerakoek inauteriak astelehenean akautu baldin bazituzten ere, bi talde hauek astear-teen ere egin zituzten beraien ibilbideak.

Odol emaleen autobusa martxoaren 30ean

Osasunbideako Odol Bankuko autobusa herrian izanen da martxoaren 30ean, 9:30etik 12:00etara, Osasun Zentroaren aitzinean.

Beti Gazte elkartearen batzarra

Otsailaren 23an egin zuen Beti Gazte elkartearen batzarra. Hurrengo alean emanen dugu hartutako erabakien berri.



ARGAZIAK: AITOR

Zako-zaharrak, Fraindarrak eta mozorroak: inauterietan ezinbertzekoak diren hiru osagai.

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka

XATURETXEA
ZAKOZAHAR
JATETXEA
T: 948 637 027 • LESAKA

IRU BIDE
Estrategia • Asador
Binar/053/3 • Lesaka
Tel: 948 637 127

GOZZALDE
JANARIEDUNDA
Binar/053/3 • LESAKA

ETXALAR

Bortz urteren ondotik, aste honetan itxi ditu ateak Herriko Ostatuak

Eguraldi ederra lagun, giro onean joan dira aurtengo inauteriak

Joseba eta Nerea

Bortz urtez Berako Iñaki Pikabearen esku egon ondotik, asteazken honetan itxiko ditu ateak Herriko Ostatuak. Oraindik ez dakigu noiz arte egonen den itxia, baina badirudi denboraldi batean bederen ez duela inork hartuko, momentuz, ez baita inor aurkeztu Udalak ateri duen enkante publiko-
ra. Lehenbiziko deialdia akabatuta, bigarren deialdia ireki du orain. Ikusteko dago, beraz, norbait prest dagoen datozen urteetan jatetxea eta ostatua hartzeko.

«HAGITZ ESPERIENTZIA EDERRA IZAN DA»

Horixe erran digu Iñaki Pikabeak, bortz urte hauetako balorazioa eskatu diogunean. Hagitz kontent egon dela aitortu digu eta «*espero dut ni Etxalarren egoitea herriarentzat ere ona izanen zela*». Zalantzarik gabe, bizi handia eman dio herriko giroari eta bilgunea izan da



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Karroza ederrak ikusi ahal izan ziren asteartean herriko karriketan.

urteetan, gazteentzat batez ere.

KONTZERTUA ETA PINTXOAK, AGUR GISA

Pasa den ortziraletan, otsailak 23, musika kontzertuarekin eman zuten bukatutzat Iñakik eta bere taldeak bortz urteko ibilbidea. Igan-dean, pintxoak eskaini zizkieten agurra ematera hurbildutakoei.

Inauteriak

Eguraldi ona lagun, giro ederrean joan dira aurtengo inauteriak. Herriko ttikienek eman zieten hasiera Ortzegun Gizenarekin. Etxez etxe eskean ibili ziren goiz eta arratsalde, eta antzerki ederrak eskaini zituzten karrikaz karrika.

Astelehenean gazteen txanda izan zen. Bi taldetan banatuta, eta

bi traktoreren laguntzaz, baserriz baserri eskean ibili ziren egun osoan. Asteartean, orga edo karroren txanda izan zen. 12:00ak aldera, hainbat kuadrila agertzen hasi ziren plaza bazterrean, bakoitza bere mozorro eta orgarekin. Bertzeak bertze, Afrikatik etortitako bi tribu, mendiko autobus bat, Etxalarko atsoen putetxea, mamu-

harrapariak eta zirko berezi bat ikusi genituen. Atentziorik gehien jaitzta bizidunak eman zuten, antzerki eta gutti agertu zena.

BERRIKUNTZA ARRAKASTATSUA

Aurtengo nobedade nagusia, asteartea arratsaldean egin zen ginkana izan zen. Hiru laguneko bortz taldek parte hartu zuten eta ikusmin handia sortu zuen. Normalean nahiko arratsalde hila izaten da asteartekoa, baina aurtengoa itxura desberdina hartu zuen ginkanari esker. Globoak lehertzen, orgatxoarekin bueltaka, zaku-saltoka, txupiko batzuekin makilari bueltaka, eta bertze hainbat probatan aritu ziren. Garrantzitsuena parte hartzea eta ongi pasatzea bazen ere, irabazleak ere izan ziren. Julen Maia, Xabier Etxarte eta Joanes Irigoienek lortu zituzten txapeldunen domina, txanpain botila eta afaria.

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Altoate, 5 - Tel: 948 630 083

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel: 948 627 914
Berriko Plaza, 10 - LESAKA

Larkilanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBEITZA PROIEKTUAK
URGANIZAZIO PROIEKTUAK
ETXE BERRITZESAK
NABEAK
KONSULTAK
INFODRAFIA 3D
SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TEL: 948 581 931

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentzurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Monterola
Tel: 948 627 914
Berriko Plaza, 10 - LESAKA
Tel: 948 627 914
Berriko Plaza, 10 - LESAKA

Arkupeak elkarteko herritarrek mus txapelketa jokatu dute

Eguraldi eder eta lagun giro onean joan dira inauteriak

Nerea ALTZURI

Otsailaren 11n Arkupeak jubilatuta eta pentzionisten elkarteko herriko bazkideek besta zuten. Egurdian meza izan zuten eta ondotik, bazkaria Aterpen. 43 bazkaltiar bildu ziren eta bazkari goxoaren ondotik mus txapelketa jokatu zen. Zortzi biktote aritu ziren eta irabazleak Miguel Bergara eta Manolo Iturria izan ziren. Bigarren Bonifacio Oskoz eta Santus Ordoki.

Giro onean joan dira inauteriak

Urteko besta ttikiak joan dira aurten ere. Beti egiten dugun moduan, aldi honetan aurtengo mozerro aldiaren errepasoa egiteko erabiliko ditugu lerro hauek. Inauteriak otsailaren 9an abiantu ziren. Ohitura den bezala gazte talde batek prestatzen ditu

egunetako egitarauak. Hala ere, herriko eskolako gaztetxoak (mozerro gaztetxoak) helduen antzera puxka-puxka ibiltzen dira herriko etxe eta baserrietan. Bai talde bat, nola bertzea herriko soinulariekin ibiltzen dira inguruak eta etxeko atariak alaitzen.

Aurten ere eguraldia lagun gustura ibili dira eta etxeetako harrera goraiatu dute. Inauterietako ekimenak presatzeke etxeetan ematen den eskupekoea laguntza haundia da gazteentzat, egun gutti baina beteak izaten batira: musika, otorduak, bertsolariak, herri-kirolak, eta gastuak ordaintzeko eskean ateratako dirua erabilgarria da. Gaur egun puxkarik ez da ematen garai batean bezala, herritarrek dirua ematen dute. Eskolako gaztetxoek, berriz, bi urtero behin ikasketa akaberako bidaiarako al-



ARGAZKIA: MIKEL LARRETXEAK

Herriko sei gaztek aizkora apustu bikaina eskaini zuten inauterietan.

txatzen dute bildutakoa.

Kontuak kontu, ortzegunean eta ortziralean lau auzoetan eta herri kaskoan eskean ibiltzeaz gain, bertzelako ekitaldiak ere izaten dira inauterietan. Ortziralean, adibidez, 140 afaltiar bildu ziren Aterpean. Mendiluze eta Irazu izan ziren afalondoa girotzen. Goizaldeko 3:30ak arte luzatu zen afalondoa. Bertako bertsolariak bertsoarako ausardia eta erraztasuna erakutsi zuten. Emakumeek ere inauteetako azeria bertan zuten eta herritar guztiak bat eginez, giro ederra eraman zuten herriko goraperan. Hantxe Mikel Salaberri musikariarekin dantzaldi herrikoia izan zen.

Biharamun arratsaldean, bestondoa borrokatuta, mozerro eta haur mozerrotu eta guraso taldeak herriko karriketaren desfilea egin zuten. Kalejiraren ondotik, merendua izan zuten. Ilunabarrean, erakustaldi polita izan zen frontoian. Neska eta mutilen arteko herri-kirol saioa eta herriko aizkolarien arteko apustu mundiala izan ziren. Nesken taldeak irabazi zuen erakustaldia eta aizkolarien artean, Xabi Agesta eta Xabi Larretxeak garaitu zuten. Ikuskizunaren ondotik, zozketa egin zen. Sariak ere ederrak izan eta denak aterazi ziren. Zenbaki saridunak frontoiko jendearen artean banatu ziren. Leti-

zia Errandonea Larraienbordakoak telebista eta mikrouhina eraman zituen, eta aldizkari honen senide den telebistako kazetari Xan Harriaguek, berriz, bertze telebista.

Aspaldiko ohiturak ere agertu nahirik, mozerro beltzek beuren agerraldia egin zuten frontoian. Afaltzeko bidea hartu zuen gero herritar multzoak, eta ondoren Jalisko Bandek eskainitako dantzaldiarekin agurtu ziren aurtengo inauteriak. Arratsa bakoitzak noiz arte luzatuko zuen auskalo. Nabarmenena ordea, gero eta jende gehiago, etxeokoa naiz erritik kanpokoak mozerrotzen gara.

ERROTAZAR
harategia

Bertako produktua

Ertegarra, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Teloria auzoa - LEKARIZ
948 457121 - 629 494317

LINDURRENBORDA
Nabaz auzoa - LESAKA
948 637212

PIKABEA
harategia janariak

Auzoa, 7 BERA • 948 631 284

LITERATURA

Poesia tailerrak egin dituzte eskualdeko zenbait eskoletako gaztetxoekin

Berriki Arantza, Igantzi eta Etxalarko ikasleak Auxtin Zamorarekin egon dira

ttipi-ttapa

Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskoletako gaztetxoek poesiaren mundua hurbilagozik ezagutzeko aukera izan dute berriki. Auxtin Zamora Senpereko olerkaria lagun zutela poesia olerki tailerrak egin zituzten otsailean, eta bai Auxtin eta bai eskoletako jendea ere gustura gelditu dira egin-dako lanarekin.

Euskal Herriko hainbat eskola eta ikastola bisitatu ditu dagoeneko Auxtinek azken bederatzi urteotan. Senpereko ikastolako haurrekin hasi zen eta geroztik, «*euskara kokatua den xoko guzietara noa-kie*», dio. Eskualdeari dagokionez, Arantzako Jose Ramon Amorosen ikasleekin, Igantziko Mi-



ARGAZKIA: AUXTIN ZAMORA

Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskoletako ikasle eta irakasleek poesia tailerrak egin dituzte Auxtin Zamorarekin. Irudian igantziarrak ageri dira.

kel Zelestino, Etxalarko Jose Mari Remiro, Berako Belen Oronoz eta Senpereko Beronika Zamora eta Paxkal Bourgoinen irakasleekin egin

ditu esperientzia hauek.

Auxtin Zamoraren hitzetan, olerkigintza «*oraingo garaian gaztetxoek beren arimaren biluzteko urduritasun*

gutxiago dute. Interneten bitartez, uste baina gaztetxo gehiagok eguneroko arazo eta sentimen gaietaz olerkiak idazten dituzte. Baina

ez dira publikatuak». Orain, ordea, horietatik batzuk Hatsaren Poesia olerki bilduman argitartuko dira.

Tailer horietako bakoitza «*sorkuntza momentu bat*» bilakatzen dela azaldu digu Auxtinek. Batzuetan argazki bat hartzen dute abiapuntutzat, bertze batzuetan, ordu erdiko ibilalditxo bat. Eta gero askatasun osoan argazkia begiratzuz edo ibilaldian bizitakoa idazteko erraten die ikasleei. Haurren poesia helduena baino freskoagoa dela dio Senperekoak, eta ez dela zaila gaztetxoek poesiaz interesa agertzea: «*Beraiek bereziki irudimen, sentimen, hitzen intuizioen aldetik guk baino aberatsago ikusten dutelako bizia*».

1951tik **lentzeria-etxea**
Casa Cambra

Merkealdia

edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak
 toailak • kuxinak • albornoak • mantelak

Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

DONEZTEBE

Mozorro eta karroza ugari aurtengo inauterietan

Ortziraleko gazteen eskearekin hasi ziren inauteriak, eta larunbatean akitu

ttipi-ttapa

Eguraldiak aunitzik lagundu ez bazuen ere, giro ona izan zen inauterietan. Gazteek base-ritz-baserri ortziraletan egin zuten eskearekin hasi ziren inauteriak. Birtartean, eskolako haurrak karrizak karrizak ibili ziren euren mozorroak erakusten. Larunbat arratsaldean organ desfilea egin zen. Lehenik, hori bai, giroa berotzeko bazkaria izan zuten parte hartzaileek. Desfilea zabaltzen, San Ferminetako peña bat agertu zen eta poliki-poliki era aunitzetako karroza eta mozorroak agertu ziren karriketara: Ballet dantzariak, Txi-

ri, Mirri eta Txiribiton Tortolikarekin, Superman talde bat, ezkongai baten despedida... Atzerriko jendearen bisita ere izan zuten doneztebarrek. Kubatik zuzenean Fidel etorri zen eta Marbellatik Julian Muñoz eta bere neskek. Dakarrerako materiala ere erakusgai jarri zuten bertze batzuk. Haur sortu berriak, eskimalak, ijitoak, bolei-hondartza... Afrikatik etorritako tribu baten batu-kada saioa eskaini zuen. Euskal preso eta erre-fuxiatuak gogoan zituen orga ere atera zen Doneztebeko karriketara. Eta apirila oraindik sartu ez bagara ere, feria



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako judokak bikain Nafarroako Kirol Jolasetan Joan den otsailaren 10an Tuteran, Nafarroako Kirol Jolasen barrenean, Errekako bi jodokek emaitza onak lortu zituzten Judo Txapelketako lehen fasean. Andoni Irazoki garaile atera zen alebin mailan, mutiletan eta 52 kiloz azpikoetan. Alebinetan, baina nesketan, Ana Mindegia bigarren izan zen, 47 kiloz behehikoetan. Hurrengo fasea martxoaren 10ean izanen da, bigarren hau ere Tuteran. Argazkian beheko aldean ageri direnak dira Andoni eta Ana.

zuzen-zuzenean segitu genuen, osaba Joxe eta guzti; bucanero koadri-la bat... Ameriketako Estatu Batuetatik zuzenean, karroza eder bat ere hurbildu zen.

Stock azoka

Doneztebarrak Merkataritza Elkarteak lehenbiziko Stock Azoka antolatatu du aste honar

honetarako, San Miguel eskolako pilotalekuan. Azokan 22 merkarik parte hartuko dute, baina horrez gain izanen da bertzerik ere. Larunbatean 17:00etan eginen dute inaugurazio ekitaldia, zinta mozketa eta aurrekuarekin, eta jarraian «Lamiak» izeneko trikitilari taldearen aurkezpena eginen da.

18:00etan, berriz, txokolatada doan eta taloak salgai egonen dira. Igandean, berriz, goizarratsaldez egonen da irekia azoka. 11:00etatik aitzinera trikitixa herrian barrena ibiliko eta 12:00etan batuka eta jazz emanaldia izanen da. Txokolatada eta taloak ere eskura nahi duenarentzat.

BERA Zere inguruak klase guzietako insektuz (samorra, zinsurre, ormierma, kukuxu...) eta erretol sagotuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zelaia, 42 A • BERA

Ginko 31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonok: 617 350 025 - 667 694 867
e-posta: zumeldi@terra.es

M. Karmele Tolosa

Lorategiak diseinatu edo berdisenatzen dira

BEINTZAKO OSTATUA

☎ 948 45 00 14

www.beintzakostatu.com

www.albergosantutu.com

BEINTZAKO OSTATUA

ORBELA

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

Kontaketa ordeflegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordus eskatu

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetes - Aina - Zizareak - Larru azaleko alergiaz - Buruko mina
Ginena izerdia - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA:
Miopia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi louseak kataraktak

GIHARRÉ ARAZOAK:
Bixkortzea - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

ITUREN

Erasun eta Rekondo Urrezko Aizkolarien Binakako finalean sartu dira

Otsailaren 19an Leitzan jokaturako kanporaketan sailkatu ziren

Arkaitz MINDEGIA

Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako bigarren finalerdia otsailaren 19an jokatu zen Leitzako Amazabal pilotalekuan. Jon Rekondo eta Ander Erasun hagitx ongi aritu ziren, eta joan den urteko txapeldunak, Mugertza anaiak, mendean hartu zituzten finaleko txartela lortuz. Rekondo eta Erasunek sei probetatik lau berengantatu zituzten.

Guttigatik izan bazen ere, Rekondo eta Erasun, berriz ere nagusi ziren denbora hagitx onaginez, 9 minutu eta 57 segundo. Mugertza anaiak ere denbora po-

lita egin zuten, 10 minutu eta 27 segundo. Garaileen denbora 17 minutu eta 29 segundokoa izan zen eta gaitzaileek, berriz, 18 minutu eta 19 segundoko denbora behar izan zuten.

Eta honela finalean Rekondo eta Erasunek, Aitzol Atutxa eta Unai Aldape bizkaitar bikotearen aurka zuten otsailaren 24 larunbatean finala Azpeitiko Izarraitx pilotalekuan.

Kronika hau idazterakoan oraindik Azpeitiako lehia egitekoa zen eta hurrengo alean ematen dugu finalaren berri.



ARTXIBOKOA

Alazne Untxalo Nafarroako Bertso Txapelketan

Nafarroako Bertso Txapelketan ari da Alazne Untxalo herritarra. Txapelketarako txartela zegoen jokoan eta bi sailkapen saio egin ziren horretarako. Lehenbiziko saioan bigarren gelditu zen Alazne, 127,5 punturekin. Orain, martxoaren 10ean, Berriozarren eginen den final aurrekoetan arituko da. Argazkia Alaznek Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako irabazi zuenean ateritakoa da.

EZKURRA

Rosario Gorostiaga omendu du herriko Arkupeak elkarteak

Elkartearen alde egindako lana eskertu diote

F. ETXEBERRIA

Ezurrako Arkupeak elkarteak bazkideek Barranka ostatuan elkartu ziren otsailaren 18an omenaldia egiteko. Aurretik meza atera zieten hil diren bazkideei. Pantxito Gorostiaga izan zen, dudarik gabe, Ezkurran Arkupeak elkarteko alde gehien saiatu zena, eta gero, Ro-

sario bere arreba. Horixe duzue omenaldien arrazoia.

Une honetan Rosario da herriko xaharrena. Orain 89 urte jaiotzen ibian, eta txiki-txikitatik hasi zen lanean, Barranka ostatuan. Hamabi urterekin saski eder batekin etxe-etxe eta baserri-baserri ibiltzen hasi zen gero. Leitzako Sarriopapel lan-

tegian ere lan egin zuen. Tolosara ere joaten zen arrautzak eta oilaskoak saltzera eta haien ordez plantak hartzen zituen gero herrian eta inguruan saltzeko. Herriko hainbat instalazio ere garbitzen zituen.

Bere anaia Pantxito-rekin batera, eta gero bakarrik, Arkupeak elkartearen ordezkari lanak egiten zituen herri-



UTZITAKO ARGAZKIA

San Mielen irudia Pantxitoren alargunak eman zion Rosario koinatari.

ko jubilatuei berriak emanez. Aurten omenaldi eskaini diote elkartearen alde egindako la-

na eskertzeko. «*San Migelek poz handia hartuko du bere irudia ondo zainduko duelako*».

ARKUPEAK

Hamar eguneko bidaia antolatu du Arkupeak elkarteak 'Costa del Sol'era

Martxoaren 7an Xabierera erromesaldia egingen dute

ttipi-ttapa

«Costa del Sol»era joanen dira martxoaren 19tik 28ra Arkupeak erretiratuen eta pentsionisten elkarteko lagunak. Hamar egunetarako bidaia antolatu dute eta hainbat txoko bisitatuko dituzte. Bidaia autobusez egingen dute eta lehenbiziko egunean Almuradielen egingen dute geldialdia. Bigarren egunean, Fuengirola joanen dira eta handik hainbat tokitara ateraldiak egingen dituzte: Granada, Ronda, Nerja, Sevilla, Cordoba... Sevillan gau pare bat pasatzeko aukera ere izanen dute.

Leku andana eza-gutzeko aukera izanen dute Arkupekoek: Granada eta Ronda bezalako hiriak, Nerjako kobazulo ospetsuak, Se-



ARTXIBOKOA

Xabierko gaztelura bisita egingen dute aurten ere Arkupeko lagunek.

villan hiria eta Morako Bodegak, eta bertzeak bertze, Cordoban Mezikitara sartu ahal izanen dira. Prestatutako atezaldi eta bisita gidatuz

gain, lasaiago egoteko aukera izanen dute, egun libreak ere izanen baitituzte.

Irteera egunean, autobusa 06:45ean atera-

ko da Irundik eta bide nagusiko herrietan geldialdiak egingen ditu. Baztandarrek Oronoz-Mugairin eta Leitzaldekoek Iruñan hartuko dute

autobusa. Itzulera, berri, hilaren 28an egingen dute, aurreikusitako orduan. Tokian tokiko berezitasunak eta norbere herritik haratago zer dagoen ezagutzeko aukera ezinhobea.

ERROMESALDIA XABIERRERA

Aspaldiko ohihurtari jarraiki, Xabierera erromesaldia antolatu dute Arkupekoek, martxoaren 7an. Xabierreko gaztelura egingen duten bidaiari, eguerdiko 12etan Erromesen Meza Santua joanen dira eta ondotik bazkaria egingen dute Xabier jatetxean. Egunari segida emanez, bazkalondoan, 16:30ean hasi eta 18:30 bitarte dantzaldia izanen da Ramontxorekin eta 18:45ean abiatuko dira bueltan etxera.

Pinturas Pikabea Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guztiak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

ttipi ttapa

☎ (0034) 948 635458

Ituzia

HIDROEREINTZA

HIDROSIEMBRA

FERMIN INAKTIBOEN LARRALDIA



ezkontza
gehigarria 07



Ezkontza errituak

Mundu zabaleko tradizioak

Pentsatzekoa denez, mundu zabalean andregai guztiak ez dira zuriz janzen. Badira zenbait kultura, andregaiak ez dutela gizongaia ezagutzen ezkontza egunera arte. Jazkerari dagokionez, dena den, egun seinalatu hori arropa koloretsuekin janzen da normaleki emakumea, kasu batzuetan antzinako erritual magiko eta erlijiosoak tartekatuz.



ezkontzan arropa koloretsuak jantzi ohi dira



tradizionalki, gurasoek moldatu ohi dute ezkontza

Ezkontzak Indian

Indian, hiru egun behar izaten dira andregaiaren ahizpa, izeba eta lehengusinek henarekin eskuak eta oinak margotzeko. Irudiek maitasuna, oporatasuna, zoriontasuna, ugalkortasuna eta espiritu gaiztoen aurreko babes irudikatzen dute. Andregaiak ez du ia gizongaia ezagutzen, beraien gurasoek moldatu ohi dute ezkontza.

Gozoak, arrautzak eta dirua Indiako ezkontzen zati dira eta bitza gozoa, ugalkortasuna eta oporatasuna adierazten dute urrenez urren. Zeremoniak spiritu gaiztoak uxatzeko erritual zaharrak baditu. Boto edo promesak egin ondotik, gizongiaren aita edo anaiak bikotearen gainean lore petaloak botatzen ditu. Ezkongaien buru gainetik hiru zirkulu eginez koko bat pasatzeak zortea dakarrenean sinesmen bat badago. Gizongiaren buru gainean durbantea daramate eta ohiturari jarraituz, andregaiak sari gorri edo arrosak eta ahalik eta bixi gehien janzen dituzte.

Ezkontza zeremoniak

Ezkontza zeremonia hasi bezain laster, gizongaia emakume tartera eramaten dute eta andregaiaren amak *aarti* (zeremonia mota bat) bat eginez hartzen du. Ondotik mandapera (ezkontza erritualak egiten diren tokira) eramaten dute. Zeremonian andregaiak ez du aurpegia erakusten.

TELEFLORA

Aratea

Gonbidatzaileentzako oparituak
Andregaientzako koresortak
Eliza edo epaitzergiko apuigarriak...

Altrate 26 • BERA • 948 63 11 21

BEOLA

Posada - Palacio

Zure ezkontza egunean,
otordurik berexiena.

Karrika Nagusia, 1 • ALMANDOZ • Tfnoa: 948 585 002

Pinpirin

PELLIQUERIA • ILEAPAINDEGIA

Aitziber
Ubiria Santesteban

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

Banility

LAIS MARLENE

Lais Marlene 18-18
Tfnoa: 943 63 11 44
20002 Iruñe



andregaiaren eskuak eta oinak margotzen dira

Ezkontzak Marokon

Alegoria eta erritualez beteta, ezkontza marokoar tradizioanalaren zeremonia konplexua, andregaiarentzako hastapen bide bezala ulertu daiteke. Bide horretan barrena, agindu bakoitzak, emakume heldua izatera iritsi arte, bere aurreko bizitzaren heriotza sinbolikoa adierazten du. Zeremoniako ekitaldiek emakume marokoarra gizaki goitiarra izateraino handiesten dute.

Andregaiarekin batera, gainerako emakumeak dira beste protagonista handiak: makillatzaile, ile apaintzaile, dekoratzaile, jostun, sukaldari eta zeremoniariek eszenaratzean parte hartzen dute eta behingoz gizonak, senargaia barne, bigarren plano batean gelditzen dira.

Hamam

Ohiturari jarraitzeko, garbitasun fisikoa eta espirituala lortzeko, andregaiak alokatutako hamam batera zazpi gauz joan behar da. Erritu hau pixkanaka gutxiagotuz joan da eta, gaur egun, bainu bakarra hartzen dute. Ama, ahizpak, izebak, lehengusinak, bizilagunak eta lagunak kandela, intsentsu eta "yu-yus" segida bat osatuz hamamera laguntzen dute.

Henaren errituala (Alheña)

Ezkontza tradizioaletan henaren errituala zazpigarren bainuaren ondorengo egunean hasten da, gorputza eta arimako yenu gaiztoak uxatzeko asmoarekin. Modu sinbolikoan, lehendabiziko andregaiaren esku eta oinetan hena kapa fin bat ematen da eta ondotik esnearekin kentzen da, gardentasunaren eta oparotasunaren zeinu. Hurrengo egunean *neggacha* batek (ekitaldi hauetan emakume espezialdua) antzinako erregela ezezagunak errespetatuz egindako arabesko, kaligrafia eta zeinu sinbolikoak erabiliz andregaiaren eskuak eta oinak margotzen ditu. Zeinu bakoitzak esanahi sinboliko bat dauka.

Zeremonia tradizioaletako sinbolismoak

Zeremoniaren ikuspuntutik ezkontza gaua esanguratsuen da: senargaiaren lagunek bi *naggafatez* (zeremonia maisuak) lagunduta, andregaiak modu alegorikoan bere etxetik bahitzen dute eta senargaiaren gurasoen etxera eramaten dute. Ezkontidea ohore guztiekin hartzen dute. Gizongaia da ospakizunetan gurasoen etxera doan lehen gizona. Emaztearen aurrean Koraneko hainbat bertso erran ondotik, aurpegia estaltzen dion errezela kentzen dio andregaiari eta kopetan musukatzen du. Amaginarrebak, etxebizitza berria eskainiz, andregaiari esnez eta datilez betetako erretilua, giltza multzo bat eta ogi bat ematen dio. Esneak emaztearen bizitza txuriz tindatu nahi du eta datilek zortea adierazten dute.

ainhoa estilista
RUTH ILEAPAINDEGIAN
betiko tokian aurkituko gaituzue!!

SOLARIUM, SPRAY SOL, AURPEGI DEPILAZIOA, MAKILAJA, MANIKURA, TRATAMENDUAK, ILE BILDUAK, ILE-LUZAPEN...

Bittoria 59 • LESAKA • 948 637 436

Zaldua arzakalariak

Elizate 948 550 491 • Donostia 948 450 364

**LURRINDEGIA
APAINDEGIA
ILEAPAINDEGIA**

Amaya

Prestatu zure aurpegiko azala ezkontza egunarako!!

- Manikura frantsesa
- Makilajea
- Solariuma
- Depilazioa
- Osagarriak

• Aurpegi eta gorputz tratamendu guztiak (garbitzea, peeling...)

Arneztea z/g • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 163



ELETT XEA
ARGAZKILARITZA
FOTOGRAFIA

Plaza Zaharra, 6
LESACA
948 637 281

maria
ileapaindegia

ezkontzetarako
manikura
makillajea
orrazkerak

maria 948 450 922
saioa 636 267 369

ZUBIONDO
Jatetxea

350, 160 eta 40
lagunendako hiru jangela
Bazkalondoa nahi bertze
luzatzeko aukera
Auto eta autobusendako
aparkalekua
Haurrendako jolasparkea
Koktelarako leku aproposa

BANKETEAK ETA KARTA
eskatu gure ezkontzetako menua

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Ezkontzak Mexikon

Mexikoko ezkontza tradizio erlijioso indigena eta katolikoaren arteko nahasketa izaten da. Prestaketek aste batzuk irauten dute eta, besta, egun batzuetan luzatzen da. Dena nahasmendu alai batean gertatzen dela dirudien arren, guztiaren azpitik erritual zorrotza dago. Erritual hau andregaiaren familiari ezkontzeko baimena eskatzen zaionean hasten da eta, toki batzuetan, urtebetez andregaiak amaginarrebaren etxean etxeko lanak egiten ikasten duenean bukatzen da.

Jakiak

la Mexiko osoan jaki nagusia *molea* da eta ahal izanez gero, eskuz egindakoa. Oaxacan zazpi klasetakoa dago eta gizonek mezkal delakoa edan eta beranduago hilko duten indioilarra buru gainean dutela dantzatzen dute. Kostaldean indioilarraren ordeztasunak erabiltzen dira eta iparraldean, antxumeak. Yucatanen beteki beltza edo txerrikume errea eskaintzen dute.

Tradizio mestizoak

Tradizio mestizoak andregaiari ezkontza eskatzeko bitartekari bat behar dela erraten du, andregaiaren familiari opariak eramaten dizkiona. Gizonak ezkontza eskatu ondotik eta egun berean elizan ere andregai ezin duela ikusi erraten du tradizioak. Senargaiaren familiaren kontura egin behar dute andregaiaren familiako emakumeek soinekoa eta janaria herri osoaren laguntzarekin prestatuko dute. Gizonak eta emakumeak banatuta egon behar dira ospakizunean. Eta herri osoa gonbidatuta dagoela suposatzen da.



tradizio indigena eta katolikoaren arteko nahasketa Mexikon



Ezkontzak Japonian

Japonian ezkontza tradizionalak hiru fase dituela esan daiteke: *Yuino no Gui*, *Kekkon no Gui* eta *Hirou no Gui*.


Adibidez, *Yuino no Gui* gurasoen artean egiten duten konpromezuaren adierazpena da. Gizongaiaren gurasoek andregaiaren familiari errespetua adierazten diote eta beraien semearen andregai izateko baimena ematea eskertzeko, hemen ezkonsaria bezala ezagutzen duguna eskaintzen diete. Japonian ezkonsariari *Yuino hin* deitzen zaio. *Yuino hin* andregai hartzeagatik esker ona adierazteko zazpi elementu berezi dira.

Kekkon-Shiki

Konpromezua iragarri ondotik, bigarren pausua *Kekkon shiki* da. Bikoteak elkarrenganako konpromisoa hartzen duen zeremonia erlijiosoa da. Bikotearen fedearen araberak, zeremonia hori shintoista edo budista izan daiteke.

Ezkontza tenplu shintoista edo budista batean nahiz hotel batean egin daiteke. Garai batean ezkontza etxean egiten zuten. Japoniako etxeetan *tokono ma* izeneko egongela bat dago eta bertan familiaren espiritua kaligrafia, lore edo apaingarri baten bidez agertzen da. Leku hori aldare bezala erabiltzen zen eta bertan egiten zen zeremonia erlijiosoa.

garai batean ezkontza etxean egiten zuten



birjintasuna ziurtatzeko, kaskitate erritua

Ijitoen ezkontza

Erritua edo zeremonia ezkontza eskabidea egiten denetik hasten da. Andregaiaren gurasoek gizongaia bere alabarentzat egokia den erabaki behar du eta ezkongaien artean maitasun asko egon arren, ezkontza galarazi dezakete. Ezkontza eskabidean, "quererse pedir" eta "decir el sí" direlakoetan, familiako kide askok parte hartzen dute. Jakituriaren eta errespetuaren sinboloa izanik, aitona izaten da nagusi eta andregai aurrean egon gabe adosten dute ezkontza.

Egunak iraun ditzakeen kristau ezteia, komunitate guztiarentzako gertaera berezia da. Zeremonian, atsedeen gabe, gonbidatuen kantu espiritualak, eskariak eta erreguak entzuten dira.

Ondotik, birjintasuna ziurtatzeko, kaskitate erritua ospatzen da. Musika eta errito tradizionalei paso ematen zaie, almendra glaseatuak botaz eta gizonzkoek alkandorak urratuz.





Zalain jatetxea - hostala

Ospakizun
bereziatako
jantokia
Menua eta karta
Sasoian sasoiko platerak

Zalain z/g • Bera-Nafarroa
Tfnoa: 948 63 09 67

JUAN J. PIKABEA

senargaietza traja

DIESEL



- Neurri handiak
- Galtzak 70 arte
- Atorrak 54 arte
- Jertseak

Amezti z/g.
DONEYTEBE
948 451 670

Jaimerena ileapaindegia

GIZONEZKOAK
EMAKUMEZKOAK



ESTETIKA
SOLARIUM-A

Tfnoa: 948 581 273
Santiago, 19 - behea
ELIZONDO



Ketubák biltzen ditu eskubideak eta betebeharrak

Ezkontza judutarra

Ezkontza judutarra besteetatik bereizten duen gauzetako bat *jupá* izeneko estalpe baten azpian egiten dela da. Kanpoan edota sinagoga bezalako leku baten barnean egin daiteke. *Jupá* hitzak hebreeraz estali, bildu edo babestu esan nahi du, beraz, bikotearen loturaren ezaugarri ezberdinak adierazten du. Maitasuna, laguntasuna, lagunartekotasuna eta ulerkortasuna bezalako sentimenduei erreferentzia egiten die.

Ezkontza eguna jartzea

Antzinako ohitura baten arabera, ilargia handitzen hasten denean egitea komeni da, honek bikotearen zoriontasuna eta oparotasuna handituko dela irudikatzen bait du.

Ezkontza egin behar deneko tokia erabakitzeke orduan kashrutarekin lotutako arauak kontutan izatea komeni da. Ezkontza etorkizuneko elkarbizitzaren oinarria da eta honek santutasun aura eta bikoteak desiratzen duen esanahia izateko, janaria *casher* zerbitzatu behar da.

Andregai, ezkongaiaren ama eta laguntzaileen soinekoa aukeratzeko orduan Lege Judutarrak ezarritako gutxienerako arau batzuk segitu behar dira. Maukak gutxienez okondoetaraino ailegatu behar dira, ehuna ez da gardena izan behar, ez dira eskoteak eramanen eta gonek belauak ezkutatu behar dituzte.

Ezkontz kontratua

Ketubá ezkontza kontratua da eta bertan ezkontzak suposatzen dituen eskubideak eta senargaiak andregaiarekiko dituen betebeharrak azaltzen dira: janaria eta arropa eman, zaindu, maitatu eta babestu. Kontratu hori sinagogan eskuratzen da. Gizongaiaren harreraren momenturik garrantzitsuena *Ketubá* osatu eta sinatzen denekoa da. *Ketubá* hitzak "idatzita dagoena" adierazten du. Kontratu honetan gizonak senar bezala dituen betebeharrak konplitutako dituela adierazten du. Bikotea bereiztekotan senarrak emazteari eman behar dion diru kopurua ere agertzen du. *Ketubá* emaztearen esku egon behar du. Galitzen bada berria idatzi behar da; *Ketubárik* gabe bikotea ezin da elkarrekin bizi.



Ezkontza erlijio islamiarrean eta erlijio mistoetan

Errito musulmana Meskita batean egin behar da, Iman edo arduradun erlijiosoaren aurrean.

Ohiturak dioenez, ezkontza zeremoniaren aurretik gizongaiak ez ditu andregaiaren prestaketak ikusi behar (soinekoa, orrazkera, etab.), zorte txarra ekartzen omen du. Andregaiaren logela ere ezin du bisitatu.

Erljio mistoak

Erljio honek gizonei kristau edo judutarrekin ezkontzea uzten die liburu errebelatu bat daukaten herriak ordezkatzeko dituztelako. Emakumeak, aldiz, arabiarrekin bakarrik ezkon daitezke. Gizonezkoek tradizioak mantendu behar dituzte eta horrek horien jarraikortasuna puskatzea ekar lezake.

Ospakizunak

Ospakizunak hiru egunetik aste betera iraun dezakete eta ezkongaietako baten etxean edo toki publiko batean egin daitezke (hotela, jatetxea, etab.).


Lehendabiziko gaua bakarrik emakumeen ospakizuna da. Andregaiak Caftan izeneko soineko batekin jazten dute eta eskuak eta oinak henarekin margotzen zaizkio.

Bigarren gauetik aitzinera oturuntzarekin hasten da (ohituraren arabera gizongaiarentzako bat eta andregaiarentzako bestea) eta senide eta lagun guztiak gonbidatzen dira. Ospakizun guztietan tradizio eta folklore musulman aberatsa agerikoa da.

Ezkongaiak ohorezko tokia hartzen dute oturuntzan eta andregaiak garbitasun eta kastitatea irudikatzen duen soineko txuri bat darama. Jendearen aurrean jarri ondok ezkontza kontsumatzeko bikotea badao.

Poligamia

Nahiz eta emazte bat baino gehiago izatea baimenduta egon, gero eta gizon gehiagok emazte bakarra izaten dute. Gauza bera gertatzen ari da ezkontzaren negoziazioarekin. Senargaia eta andregaiaren familiako gizonezko senide baten artean (aita edo anaiak) negoziatzeko ohitura bazegoen ere, gaur egun ez da hainbeste egiten. Oraindik mantentzen den ohitura ezkonsariarena da. Familia berriaren egonkortasun ekonomikoa bermatzeko modukoa izan behar da. Koranen arabera andregaiari materiala den zerbait eman behar zaio, horrela, bikotea banatuz gero, emazteak bizi ahal izateko zerbait izanen duela ziurtatzen da.



ADATSA
ileapaindegia

Braulio Iriarte Iuzapena, 58
Tfnoa: 948 452 467
ELIZONDO

ENDANEA

Ezkontzarako behar dituzun lore apaingarri guztiak
Zatuz eta ikusi gure eskaintza

Jaizubia Auzoa 40, 3-1 (Irungo ospitaleko bigaturtean)
Tfnoa: 943 641710 • www.endanea.com
9:00etatik 20:00etara irekia
JAI EGUNETAN 9:00etatik 13:30etara

eta...
ezkontzen bagara?

Zuen ametsetako ezkontza bidaia dugu.
Eta gainera gonbidapenak dohainik lortu ditzazkezu!

Viajes EstivalTour
Ilekueta 1 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 04 51 / Fax: 948 63 06 41
bera@estivaltour.com / www.estivaltour.com

I-STOCKdoneztebe

azoka 07

martxoak 3-4

san migel eskolako frontoian

martxoak 3 larunbata

17:00-19:30

17:00etan

inaugurazioa: zinta mozketa, txistu eta aurreku dantza "Lamiak", trikitilari taldearen aurkezpena:

Ainhoa Jorajuria, Josune Gago, Maitane Larretxea, Ainhoa San Miguel, Maialen Belarra, Andrea Apeztegia, Maria Estanga

18:00etan

txokolatada doan

Taloak salgai egonen dira

martxoak 4 igandea

11:00-13:30 / 16:30-19:30

11:00etan

trikitxa herrian barna eta ibilbidearen bukaera ferian.

12:00etan

Batuka eta Jazz "Rebeca y sus alumnas"

18:00etan

txokolatada doan

Taloak salgai egonen dira

Alustiza
Amezitia Ostaturia
Saldias Harategia
Lakar etxea
Ostiz Etxea
CTV
Cosas de casa
Belen Ioredenda
Mena Argazkidenda
Zaldua Argazkidenda
Honorio Taberna

Ibarrola
Doneztebe Inmobiliaria
Kamamila
Mari Cruz Lentzeria
Merkaopari
Goxua gozologia
Amaia Lurindenda
Picabea Mujer
S@re
J.L. San Miguel Tailerrak
Txirrista




DOÑEZTEBARRAK MERKATUAK ELKARTEN. DOPINIA 067
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES



MERCHE
MODA HOMBRE

Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943612626

- *Giovani Valdi*
- *Sandro Sellini*
- *Caramelo Gala*



GOIZUETA

Nafarroako Bertsolarien Txapelketako saioa herrian izanen da

Larunbat honetan izanen da 18:00etatik aurrera, Udaletxeko Ganbaran

Esteban AROTZENA

Larunbat honetan, hilak 3, Nafarroako Bertsolarien Txapelketako finalerdietako saioa izanen da herrian, ganbaran, eta arratsaldeko 6etatik aurrera.

Julen Zelaieta, Juan Joxe Zubieta «Etxabe», Diego Riaño, Iñigo Ibarra, Jon Elizetxe eta Iñaki Aleman bertsolariak arituko dira lanean. Beste seikote batek, berriz, joan den larunbatean kantatu zuen Etxarrin, eta hilaren 10ean eginen den Berriozarreko saioak emanen die bukaera finalerdiei. Finala, berriz, Elizondoko Lurdantzalekuan izanen da datorren martxoaren 24an.

Iñoteak

Aurtengo karnabalen balantzeak posit-boa izan behar du nahita nahiez. Egun hauetako egitazko protagonisten taldea, mozorroena, urtetik urtera handitzen ari da kantitatean eta kalitatean; baserritarrekin orain dela urte batzuk sortutako gatazkak gaintu dela dirudi; astearte ilunabarreko karreroen eta gainerako mozorroen festa finkatuta dago.

Esan behar da, euriak dizdira pixko bat kendu ziola zagidantzari, baina hala ere, ez zuen festa hondatzea lortu. Bitxikeria izan da, bestalde, mozorroen taldeko 55 lagun artean

ama-semeak aurkitzea. Rosa Mari Olaizolak 26. urtea bete du mozorro-etako trikitalari bezala, eta naturaren legeak barikatzen ez duenez, 16 urteko Xumar semearekin topo egin du aurtengoan taldean. Erretiroan pentsatzera eramanez, Rosa Mari zirkunstantzia honek

Herriaren egoerari buruzko azterketa

Herriaren egoerari buruzko diagnosis egin du laupabost laguneko talde batek, eta hilaren 10ean arratsaldeko laurteran eginen den batzarrean emanen dute horren berri.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Talde ederra osatu dute aurten ere mozorroek.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Rosa Mari eta Xumar ama-semeak bat egin dute aurten mozorroen taldean.

«Bosque de sombras» filma

Gure herrian grabatzen aritu ziren «Bosque de sombras» filma ikusgai dago lehengo

ostiralaz geroztik Euskal Herriko zine aretoetan. Kritika onak jasotutako Koldo Serra bilbotarrak Artikutzan egindako lan honek.

ARANO

Giro onean ospatu zituzten inauteriak aranoarrek

laz bezala, aurten ere aurreratu egin zituzten

Kontxi CLAVER

Otsailaren 10ean larunbatarekin ospatu ziren inauteriak herrian, eta lagun giro onean joan ziren.

Aurtengoan ere aurreratu egin dira betiko edo aspaldiko urteetan

egin den bezalaxe, aste bete eta egun batez, hain zuzen.

Aurreratzearena ez da berria, urte askotan ezagutu dugu herritarrok. Baina beti igandarekin ospatu izan dira, joan zen urtean izan

ezik, orduan egin baitzen inauterien egun aldaketa hau lehenengo aldiz.

Orduko emaitza ona ikusita, aurten ere errepikatu egin da. Izan ere festa askoz lasaitasun handiagoarekin hartzen



Musika lagun, giro onean ibili ziren herritarrak inauterietan.

du jendeak larunbatarekin, hurrengo eguna jai eguna izanik, luzatu

nahi duenarentzat ere aukera ezin hobea izaten baita.

LEITZA

Kultur Elkarteak indartsu ekin dio berriro bideari

Diego Riaño eta Migel Mari Eloseggi «Luze» Nafarroako Bertsolari Txapelketan arituko dira

Joseba URKIOLA

Tarte baten ostean, Leitzako Kultur Taldea aspaldidanik hasitako bideari berriro ere ekiteko prest da. Lehengo maiatzean gauzatu zen Kultur Astearen ondotik, momentu jakin batzuk kenduta, Leitzako Kultur Taldea isilik dagoen txoria bezalaxe zegoen. Bagenekien jakin, kultura eta euskara helburu nagusizat betidanik eduki dituen elkar goa oraindik ez zela erabat ezabatua, baina herrian berauek antolatutako gauza oso gutxi egiten zirenez, batzuk okerrera pentsatzen hasiak ziren.

Dena den, urte berriari sartzearekin batera eta talde barnean aldaketa batzuk gauzatu ondotik, kultur taldea martxoan udaberriko loreak bezalaxe, loretze bidean dago.

Aro berri honetako lehen hitzordu garrantzitsuenetakoa, Santa Ageda Bezperako ekitaldian eduki zuen. Bertso Eskolako kideekin batera, berauek arduratu baitziren otsailaren 4ko arratsari behar bezalako giroa jartzeaz. Hurrengo hitzordu garrantzitsua, okerrikez, kulturaren alor des-



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Aurrera Futbol Taldeko neskek

Gehienetan Aurrera Futbol Taldeko mutilez mintzatu ohi bagara ere, Leitzako talde txuri-gorriak nesken talde bat ere izan badaukala esan behar da. Bertan 17-25 urte bitarteko herriko neskek hartzen dute parte eta Iñaki Zabalo aritzen da entrenatzaile lanetan. Areto Futboleko oinarritutako abentura berri hau, joan den urteko urrian hasi zuten eta taldean parte hartzen duten gazteek aurretiazko esperientzia izan baduten arren, lehenengo aldia da guztiak elkarrekin jokatzeko dutela. Saillapen nagusiari erreparatzen badiogu, erdialdean daude. Hala eta guztiz ere, partaideek argi adierazi bezala, emaitza «gutxienekoa» da eta beraiei egiaz axola zaien, areto futbola aitzakiatzat hartuz une eder bat igarotzea da.

berdinak eta euskara oinarri nagusizat hartu ohi dituen Kultur Astea izango da.

Herriko bertsolariak txapelketarako prest

Aurreko edizioan irakurri ahal izan zenuten moduan, aurtengo Na-

farroako Bertsolari Txapelketa otsailaren 24an hasi zen. Lehengo urtean gertatu bezala, aurtengoan ere Leitzak bi ordezkari izanen ditu txapelketako tranpaldogainean. Ordezkaririk, Diego Riaño eta Migel Mari Eloseggi «Luze» dira. Diegok Goizueta-ko udaletxean egin den

bigarren jardunaldian hartu du parte eta Migel Mari Eloseggi «Luze», berriz, martxoaren 10ean Berriozarko Musika Eskolan izanen da.

Aipatu aurtengo txapelketa egokiro presatze aldera, Leitzako bi ordezkariak Unai Elizasu eta Arkaitz Goikoe-
txea gai-jartzaile eta

bertsolari ezagunarekin batera, bertso saio bat egin zutela pasa berri den otsailaren 23ko arratsean.

Atakabeltz Gaztetxea ekitaldiz bete

Leitzako Atakabeltz Gaztetxeako gazteek, ekitaldi ugari antolatu dituzte martxorako. Hasiteko aipatu, udazkenaz geroztik ostegunero zine emanaldiekin segitzen dutela, eta martxorako ere, jada erabakia dutela zein film eskaini. Ikusgai egonen diren filmen artean, «Aupa Etxebeste» martxoaren 1ean eta «El Resplandor» martxoaren 22an dira aipagarriak.

Ostegunero zine emanaldiaz gain, Emakumeen Eguna eta martxoaren 9a ere, Atakabeltzeko gazteentzako egun garrantzitsuak dira. Martxoaren 8an Emakumeen Eguna dela-eta, zerbait berezia antolatu nahi dute. Hurrengo egunean, berriz, Iñigo Irazokik arratsaldeko zortzietatik aurrera, «Etxe alternatiboak» izenburuarekin gai horren inguruko hitzaldia eskainiko du gaztetxera gerturatzen den orontzako.

luis cestau baraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

Ark_b arkitektura bulegoa

Erakuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza

Celia Lana Ranz
Huarte Gotzai 7 - 31860 Leitza
645098478 tel

BAZTAN

Hirugarren saialdiaren ondotik alkaterik gabe daude Elbeten

Irurita da alkaterik gabe segitzen duen bertze herria

ttipi-ttapa

Elbetek alkaterik gabe segitzen du joan den abenduaren 24az geroztik eta otsailaren 11n egindako hirugarren batzarrean hautagairik gabe gelditu ondotik. Honenbertzez, Baztango 15 herrietatik Irurita eta Elbete dira alkaterik gabe segitzen direnak.

Baztango Junta Generalako presidentea den Baztango alkate Virginia Aleman eta Santi Aldako alkateordearekin batera dozena bat herritar bildu zen Posadan egindako batzarrean, hirugarren deialdia herria alkaterik gabe dagoenez geroztik.

Bai Iruritan eta bai Elbeten laugarren batzarre bat eginen dute hemendik hilabete batera, azken hori ere Baztango Udalak deitua. Hautagai bakarra aurkeztuz gero, zuzenean alkate izatera pasatuko litzateke, hautagai gehiagorik balitz, bozketa egingen da.

BAZTANGO JUNTA GENERALA

Alkate-juradoak bi urtetik behin berritzen dira. Junteroak eta bokalak lau urtetik behin. Udal-korporazioa ere lau urtetik behin.

BAZTANGOIZA

Junteroa	Juan Luis karrikaburu
Bokalak	Fermin Barazabal, Martin Elizalde
Amaior	Miguel Angel Ariztia
Azpilkueta	Jon Alkasena
Erratzu	Santiago Ibargarai
Arizkun	Patxi Larralde

ELIZONDO

Junteroa	Pello Oskariz
Bokalak	Fco. Burgete, Agustin Larratxea
Elbete	
Elizondo	Rafael Olaizola
Lekaroz	Javier Elizalde
Gartzain	Jose Maria Alberro

ERBEREA

Junteroa	Pello Berro
Bokalak	Jesus Elizegi, Jose M ^a Organbide
Irurita	
Arraoiz	Pedro Agerrebere
Ornoz-Mugairi	Bittor Elizagoien

BASABURUA

Junteroa	Antonio Barrenetxe
Bokalak	Felix Etxeberria, Rafael Arratxea
Ziga	Pablo Zenoz
Aniz	Martin Gamio
Berroeta	Arantza Zelaia
Almandoz	Luis Roldan

Ezker abertzaleak maiatzean aurkezteko asmoa du

Otsailaren 11n egindako agerraldian, Baztango ezker abertzaleak maiatzean egingen diren udal-hauteskundeetara aurkezteko asmoa duela jakinarazi zuen. Azken lau urteotan Baztango Udalean «ezkerren ikuspuntua falta» izan dela iritzita, baztandar guztiak ordezkatuak izateko aukera izateko eskubidea zutela erran zuten. Baztan «hobe» baten alde lan egiteko konpromisoa hartuko zutela iragarri zuten, «herritarren parte-hartzea bermatuz». Gaineratu zuten, gure herriak gatazka amaitzeko konpromisoa duela, eta ezker abertzalearen kontrako «erasoen» gainetik, euren proiektu politikoaren alde lanean jarraituko zutela adierazi zuten, «goz eta formalki».

FLASH

Elizondoko BHIko ikasleak Nafarroako Enpresa Simulatuen I.Ferian

Joan den otsailaren 9an Tafallako feriekien batera egin zen Nafarroako Enpresa Simulatuen I. Topagunea. Bertan izan ziren Elizondoko BHIko Administrazio eta Finantzeta Goi Heziketako Zikloko ikasleak eta Baztan Likoreak SAS enpresa aurkeztu zuten. Proiektu honekin parte hartzen duten 5. merkataritza topagunea izan da. Aitzinetik, Molins del Rey, Reus, Lleida eta Bartzelonan egin direnetan parte hartu baitute. Topaketa hauetan Goi Zikloko sei ikasle parte hartu dute, bi irakaslerekin batera.

Xabier Soubeleten liburua

Otsailaren 9an *Oroitziarak. Baztaneko lapurtar batek leihoeetik liburua* aurkeztu zuen Xabier Soubelet pintore eta idazle ziburutarrek, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Ziburun jaio zen Soubelet, baina Baztanen bizi da, Arizkun. Arizkongo bere etxean Sarternean bere erakusketa ikusgai dago uneoro.

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

948 581 469
948 580 433

Frantziako etorb. 13
Arretxatze 3B
ELBETE

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karkina
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Pitti

eskabazioak

Tel: 616 513 491

Mendiola auzoa, 34 ZUBETA

ola SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tlfnoa 943 623 136

BAZTAN

Pello Obregozo iruritarra Iruñeko Katedraleko kanonigo izendatu dute

Bertzalde, Baztango Haur Eskola eraikitzeko kontratazio espedientea onartu du Udalak

Maite OTEIZA

Pello Obregozo Gami iruritarra kanonigo izendatu dute, Orain arte Fernando Sebastian artzapezpikuaren idazkari lanetan ibili da, baina hemendik aitzinera Iruñeko Katedraleko kanonigoa izanen da.

1991ko apirilaren 7an izendatu zuten apaiz eta zortzi urtez Uharteko Arakilen egon zen apaiz. Berriki arte, berriz, Sebastianen idazkari lanetan ibili da. Orain etapa berri bati eman dio hasiera. Gisa berean, aipatu, apaiz sartu aitzinetik medikuntza ikasketak egin eta mediku lanetan ibili zela.

Baztango kultur agenda etxez-etxe banatua

Baztango euskalgintza-

ren eskutik, Ttipi-Ttapa aldizkariaren ale honekin Baztango Kultur Agenda banatu da etxez-etxe. Bertan, datozen egunetan Baztanen izanen diren ekitaldien berri agertzen da: lehiaketak, tailerrak, mendi ibilaldiak, mus txapelketak, hitzaldiak, kontzertuak, kantu afariak... Egitarau zabala prestatu dute.

Haur eskolaren proiektua onartua

Baztango Haur Eskola eraikitzeko kontratazio espedientea onartu zuen otsailaren 2an aho batez Udalak. 0 - 3 urte bitarteko haurrentzako eskola egiteko kontrataren aurrekontua 1.132.719,05 eurokoa izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Magnak eta Baztango Futbol Klubak hitzarmena sinatu dute

Otsailaren 13an hitzarmena sinatu zuten Magnesitas Navarras SA (Magna) enpresak eta Baztango Futbol Klubak. Hala, Magna izanen da klubaren babesle berria. Magnak diru-laguntza jarriko du eta klubak enpresaren izena eramanen du bere kirol-ekipamenduan. Gisa berean, Elizondoko Giltxaurdi futbol-zelaian enpresaren izena daramaten hiru publizitate panel ere paratuko dituzte. Hitzarmena urte baterako sinatu dute. Argazkian, bertzeak bertze, hitzarmena sinatu zuten Magnako ordezkari Nicolas Gangutia eta Kirol Klubaren izenean Lander Santameria ageri dira.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zuzenbideko errep. 1. km
URDAZUBI

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
T: 948 453 050
N-121-B, 66 km
LAMAUR

Okindegia Jatetxea
Uxoa
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!
Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

POTTOKI
ZIKLO BARRIA BERRI
ZANITUZ!!!
Pottoki Plaza, 3 - Iruña
5100 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfn: 948 590 605
pottoki@irruña.es
Pottokiren irekierak:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00
BILTEGI
SERBIAL
LEHENDAKO ALKAL
LEHENDAKO JOYAKIN
LEHENDAKO TAPAK
HAR-NAKI ALKAL
OFIZIA
MOTEL ZERBIAL

BORTZIRIAK

«Bortzirietan bizi» etorkinentzako baliabideen gida aurkeztu dute

Euskara erabiltzeko solaslaguna egitasmoa ere kalean da

ttipi-ttapa

Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak etorkinei ate berriak ireki asmoz, proiektu berria jarri du abian: «*Bortzirietan bizi*» baliabideen gida. Egitasmoa joan den astean aurkeztu zuten Patxiku Irisarri mankomunitateko presidentek eta Igor Portu teknikariak.

Gida honekin duela bospasei urte hasitako emigrazioaren fenomenoaren jarraipena zela adierazi zuten egileek: «*persona ezezagun haiengan hurbiltzeko lehenbiziko saioak egin zituzten eskualdeko hainbat erakunde eta taldek*». Bide horretatik, 2005ean Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak, bortz herrietara ailega-

tutako bizilagun berrien errealitatea hobeki eza-gutzeko asmoarekin ikerketa egin zuten: hauen kopurua, euskararekiko duten jarrera, eta ezaugarri sozio-demografikoen berri bildu zuten. Hortik abiatuz, 2006an bete beharreko lau egitasmo finkatu zituzten, eta horien artean dago aurkeztu berri duten harrera egiteko baliabideen gida.

Egileen hitzetan, Bortzirietatik kanpotik datozen guziei lehenbiziko harrera egiteko tresna da, eta hemengo berriak eta baliagarriak izan daitezkeen baliabide eta telefono lagungarriak eskaintzeko asmoz egin dute.

Solaslaguna egitasmoa

Bortzirietako Euskara



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Patxiku Irisarri eta Igor Portu «Bortzirietan bizi» gidaren aurkezpenean.

Mankomunitateak eta Euskaltegiak «Solaslaguna» izeneko egitasmoa aurkeztu zuten otsailaren 20an. Bi erakundeek erakundeek sustatzen duten proiektu berri honekin euskara ikasten ari direnei praktikatzeko aukera eman nahi diete, erabiltzea delako ikasteko modurik emankorrena. Gisa berean, euskaraz dakitenei ere «bertez lagun batzuei euskaraz egoki solasten laguntzeko», proiektuan parte hartzeko deia egin zieten. Helburua: «*giroa euskalduntzea*».

Euskara erabiltzeko proiektu honetan, parte hartzaileek astean ordu



bat eskaini beharko lio-kete egitasmoari. Gainerakoan, taldekideek erabakiko lukete noiz eta zertarako elkartu; baldintza bakarra euskaraz aritzea. Mankomunitatea taldeak egin eta taldekideak harremanetan jarriko lituzke.

Solaslaguna proiektua berria da Bortzirietan, baina dagoeneko Euskal herriko hainbat lekutan abian da. Izen ematea 948 634125 edo 948 637796 telefonon egin beharko da, edo bortziriak@euskalnet.net helbidean.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariak eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbaritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	--

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ZOANSA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Banarta, 2 · Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
 Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

ZUGARRAMURDI

Sorginkeriaren Museoa udarako zabaldu nahi da

Herriko kontu xaharrak CDan eta Interneten argitaratuko dituzte

Koro eta Margari

Ospitalean egin beharra den *Sorginkeriaren Museoa* heldu den udarako ireki nahi da. Momentu hauetan barneko aldean eman behar den tresneria presatzen ari dira Bartzelonako enpresa batean, eta ondotik, Ospitalean bertan muntatuko dira, maiatza-ekaina aldera prest edukitzeko.

Behin museoa irekita, uste da gure herria bisitatzeko duen jende kopurua handituko dela. Akitu berria den 2006-an lezea ikustera etorri diren kontuak egin ondotik, honako hauek dira orain arteko zenbakiak: 56.000 heldu eta

9.000 haur. Kopuru hauei gehitu behar zaizkie helduz beteak zeuden 170 autobus eta 51 haurrenak. Bitxikeria bezala aipatu, apirila eta uztaila direla autobus gehien etortzen diren hilabeteak, eta apirila eta abuztua, batez ere, familiak eta lagun taldeak dira nagusi.

Lehengo kontuak Interneten eta CDan

Baiinternet bidez, bai CD bidez, Zugarramurdiko lehengo bizitzari buruzko informazio ugari ikusteko aukera izanen dugu luze gabe: lehengo bestak, inauterriak, eguberriak, kon-



UTZITAKO ARGAZKIA

Atxuria mendi taldea Santiago bidea egiten

Atxuria mendi taldeak Santiago bideko zati bat egin du 2007ko lehenbiziko hiru ibilaldietan: Baionatik Iruritarainokoa. Heldu den urtean egingen dute bertze zatia: Irurita-Iruñea. Argazkia Otsondon egingina da, Santiago bideko harrian.

trabandoko istorioak, kiusua eta ikatza egiteko lanak, zurgintza eta mendiko lanak, sasoi-ko bertze lanak (ogia, belarrak, iratzea, artoa, ilarrak, arbia...), lehen-go haur jokoak, haur kantak, mendiko eskolak, herriko eskolak, etxeko andreen lanak (arropa eskuz garbitzea, xaboina egitea, matalaza harrotzea, ogia egitea...), janzkerak (abarrak, kalotzak, ardi larria...), sortzeak, ez-

kontzak eta heriotzak (gauhila, aukoaitzinekoak...), sendatzeko erabiltzen ziren erre-medio bereziak, usadio xaharrak (firla jokoak, maiatzeko gurutzeen prozesioak, zotal egunak edo sanson harria...).

Nafarroako Unibertsitateak, Nafarroako Kutxak eta Euskokultur Fundazioak martxan jarri duten bilketa da Zugarramurdin egiten hasi direna. Gisa berean,

Nafarroako herri gehienetan ere biltzen ari dira honelako informazioa. Zugarramurdiren kasuan, adineko bortz lagun elkarrizketatu dituzte eta eurek errandako guztia telebista bidez grabatuta gelditu da, gero Interneten argitaratu emateko. Iruñeko Civicanen ere kontsultu ahal izanen da eta, azkenik, herriari itzultzeko izanen da. Lan hau Akelarre Elkarteak ordaindu du.

Toailak-Manteleriak-Oheko maindreak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzeko ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue perla bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzeko ditugu

Elxeri Plz. Berrio 4ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

Donamaria'ko Benta
Erreserba bidez bakarrik: 948 450708

Menu MEXIKAR GASTRONOMIKOA: EGUNAK
25 euro pertsona bakoitzeko
Mexiko ezagutu gastronomikoki
sukaldari mexikarra

2007-02-10
2007-03-10
2007-04-14

m bentamiguel
denda, jatebrea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - Tel: 948 631 209

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hobereenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI



EZKONTZAK

Daniel Ziganda Arretxea eta **Maria Lourdes Bengotxea Erasun**, Mugairikoa eta Labaiengoa, otsailaren 17an.
Francisco Javier Cia Juanaberria eta **Miren Lutxi Martin Goñi** Lekarozen, 2006ko azaroaren 4an.



SORTZEAK

Maddi Oiarzabal Lizardi, Doneztebekoa, urtarrilaren 22an.
Izei Astibia Martirena, Legasakoa, urtarrilak 31n.
Mikel Joar Etxeberria Brabo, Berakoa, otsailaren 6an.
Maria del Carmen Asto Huaman, Lesakakoa, otsailaren 10ean.
Onitze Iparragirre Irigoien, Lesakakoa, otsailaren 17an.
Arkaitz Goienetxe Carrica, Amaiurkoa, otsailaren 22an.
Enaitz Goñi Erauskin, Elizondokoa, otsailaren 9an.
Gaxuxa Zelaieta Eulate, Donamariakoa, otsailaren 18an.



HERIOTZAK

Fermina Ondarrola Arozena, Goizuetakoa, urtarrilaren 6an, 94 urte.
Maria Etxeberria Elizalde, Goizuetakoa, otsailaren 10ean, 89 urte.
Agustin Iribarren Indart, Amaiurkoa, otsailaren 1ean, 95 urte.
Petra Maria Paz Goñi Elizegi, Lekarozkoa, otsailaren 8a, 94 urte
Bonifacio Garde Garbalena, Lekarozkoa, otsailaren 11n, 77 urte.
Jose Luis Mendiburu Arizaleta, Azpilkuetakoa, otsailaren 19an, 48 urte.
Juan Fermin Petrikorena Iraizoz, Doneztebekoa, otsailaren 20an, 77 urte.
Elena Iribarren Zubieta, Etxalarkoa, otsailaren 6an, 78 urte.
Elena Erasun Albistur, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 8an, 86 urte.
Pakita Etxarte Elizondo, Leitzakoa, otsailaren 9an, 82 urte.
Justo Maia Ariztia, Elbetekoa, otsailaren 10ean, 81 urte.
Policarpo Larraia Elizalde, Leitzakoa, otsailaren 18an, 74 urte.
Juan Telletxea Alzugarai, Berakoa, otsailaren 19an, 83 urte.



Juan Bautista IRIGOIEN JORAJURIA

2007ko otsailaren 2an hil zen Arantzan, 83 urte zituela.

*Nola lortu zoriona?
 pakegile da aitona
 errukitsua ta ona
 akatsik gabeko gizona.*

ZURE FAMILIA.



Esperanza SARRATEA GAMIO IURTEURRENA.

*Seguru urte aunitz pasatuko direla,
 eta hau lehenbizikoa bertzerik ez dela.
 Baina urteak kontatu ahal izateak
 zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

Bere aldeko meza: martxoaren 4an, igandea, goizeko 11tan Narbarteko Elizan.

ZURE FAMILIA.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI

Andutzeta 12, Etxalar
 Tfnoa: 948 63 54 58

DATUAK...

- Joshe Viela Urtasun iruritarra duela bi urte hasi zen Osasuna futbol taldeko profesionalekin prestatzaile fisiko lanetan. Lehen mailako jokalariekin, berriz, 2006ko maiatzean hasi zen.
- Baztanen hasi zen futbolearen eta jubenil mailan bi urte eta erdiz Iruñan aritu zen. Gasteizen INEF ikasketak egin eta gorputz heziketako irakasle modura ibili zen gero. Eta horrela, Taxoaren hasi zen harrobiko taldeetan.
- Hamar urte daramatza Osasuna taldean lanean eta taldeko kategoria guztietan aritua da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joshe VIELA *Osasunako prestatzaile fisikoa*

«Amateur gisa hasi eta poliki-poliki profesionalekin aritzeko aukera izan dut»

Goizalde URDANPILLETA

Betiko ametsa futbolari izatea. Halaxe desiatu izan du Joshe Vielak tikitatik, eta amets hori ez du hagitz bazterrera utzi bere egunerokoan. Dagoeneko hamar urte pasatu dira Viela Taxoaren lanean hasi zenetik. «Hasieran amateur gisa hasi nintzen, eta poliki-poliki, urratsez-urrats jokalariekin aritzeko aukera izan dut».

Aspektu ezberdinak pilatu zirelako hasi zen Joshe Taxoaren lanean. «Nire formakuntzarekin segitzen nuenean, ikastaro batzuetan hemengo arduradunekin harremanetan hasi nintzen. Eta horrela, Taxoaren egitura eta giza-baliabide aldetik al daketa bat eman behar zen garaian, mugimendu hartatik nahiko hurbil nengoenean gertatu zen».

Gustukoa du Vielak bere lana, «aberatsa eta erakargarria» delako. Egunetik egunera bere lana aldatzen dela dio. «Denboraldiak fase ezber-

«Liga lehen hamar lehenengoen artean akitzea gustatuko litzaidake, eta UEFA eta KOPako finalera ailegatzea ere bai. Halere, ametsik gozoena Chanpionerako sailkatzea»

dinak ditu, kontuan hartu behar da 24-25 jokalariz ari garela eta bakoitzak bere ezaugarriak dituela. Denboraldi hasieran, jendea ezagutzeko garaia da. Hori da planifikatzeko abiapuntuta. Hortik abiatuta bideratzen dugu hurrengo asteetako lana».

Talde lana da nabarmendu duen berte ezaugarria. «Talde bakoitzak bere filosofia du, eta Osasunaren futbola era batera ikusten dugu, talde lanean eta denon inplikazioan oinarritua». Eta emaitza onak lortzeko zenbait jokalarik duten dohain berezietaz baliatzen badira ere, «argi dago, onenek ere ondokoan laguntzarik gabe ez dutela ezer eginen».

«NEKE FISIKOA HANDIA IZATEN DA, BAINA PSIKOLOGIKOA ERE BAI»

Asteartetan ez ezik gainontzeko egunetan entrenamenduak izaten dituzte Osasunako jokalariek, baina neke fisiko horretatik haratago, taldekideen artean lehia izaten dela aitortu du Vielak, neke psikologikoa ere bai, beraz, «postua lortu edo askotan deialdian sartzeko». Izan ere, 24 jokalaritik 18k parte hartzen dute deialdian, eta horietatik 11 ateratzen dira zelaira, gehienez bertze hiru. Aste-oro sei jokalariek etxean. «Egunero zelaiaren konpetitibitate handia dago».

Liga hasiera gogorra izan zuen Osasunak, «partida dezente jokatu eta aldeko emaitzik ez». Baina egingako ahaleginari esker ongi doaz ligako sailkapen nagusian. Hala, hamar lehenengoetan bukatuta kontent geldituko litzateke Viela. «UEFA eta Kopako finalera ailegatzea ere gustatuko litzateke». Baina ametsik gozoena «Chanpionerako berriz sailkatzea» litzateke.

HARRIJASOTZEA

Inaxio Perurenak 285 kiloko harria jaso eta marka berria egin du

Euskadiko Sei Orduetan egin zuen erakustaldia

Gurutze PIKABEA

Inaxio Perurenak marka berria ezarri du: 285 kiloko harria. Lehenbiziko ahaleginean ezin izan bazuen ere, bigarrenen bizkar gainera berdintzea lortu zuen leitzar gazteak, joan den otsailaren 17an Euskadiko Sei Orduen barruan. Espero baino arazo gehiago izan zituen, baina Iñaki aitaren gomendioei segituz lortu zuen: «Ez da altxaldi dotorea izan, baina balekotzat eman dute. Etxean aritzea gauza bat da, baina hemen horrenbeste jenderen aurrean aritzea beste bat», erran zuen gazteak marka ezarritakoan.

2005eko azaroan jasozuen 280koa Inaxiok



ARTXIBOKOA

Inaxiok aita ondoan zuela jaso zuen 285ko harria. Argazkian 200 kilokoa altxatzen ageri da

eta gerostik esku batekin markak egiten ibilia zen. 280koa jasozuen erraz egin zuen

altxaldia, eta horregatik «pena pixka batekin» gelditu zela aitortu zuen Inaxiok Euskadiko Sei

Orduetan egindako altxandiarekin, bere hitzetan, «ez naizelako ongi aritu».

AIZKORA

Larretxea eta Barberena Urrezko Aizkolarien Binakako finalean

23 urtez azpikoetan Erasun eta Rekondo ere finalean

G.P.

Donato Larretxeak otsailaren 11n lortu zuen Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketarako finala jokatzeko txartela, Barberena lagun zuela. Horrela, hilaren 24an Azpeitian jokatzekoa zen finalean aritzekoak ziren, Nazabal eta Lopezen aurka.

Espejon (Araba) jokatu zuten finalerdia, eta

24 minutu eta 50 segundo behar izan zituzten lan guztiak bukatzeko, Peñagarikano eta Txapartegiren aurka. Hasierako proban aitzinean jarri ziren Larretxea eta Barberena, baina bertze proba bazueta Peñagarikano eta Txapartegi nagusitu ziren. Bukararako 50 segundoko aldea aterazieten nafarrek Pe-

ñagarikano eta Txapartegi gipuzkoarrei.

23 urtez azpikoetan ere lan bikaina egin zuten eskualdeko bi gazteak. Jon Rekondo leitzarrek eta Ander Erasun aurtiztarrak otsailaren 18an lortu zuten finalerako sailkatzea. Leitzako Amazabal pilotalekuan jokaturako kanporaketan Mugerza anaiak garaitu zituzten,



ARTXIBOKOA

Larretxeak Barberena lagun zuela jokatzekoa zuen Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako finala.

eta 40 segunduko aldea aterazieten. Oihan eta Garikoitz Larretxea, berriz, kanporatuak izan ziren finalerdietan, Atutxa II eta Aldape bizkai-

tarrek irabazi baitzieten. Aste hondar honetan Rekondo eta Erasun Atutxa II eta Aldaperen aurka aritzekoak ziren Azpeitian.

FLASH

Hasi dira Nafarroako Herri Kirol Jolasak

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe eskualdeko hainbat herri-tako taldeak hasiak dira Nafarroako Herri Kirol Jolasetan. Kirol jolas hauek hiru mailetan jokatu dira: kimuak (11-12 urte), haur mailakoak (13-14 urte) eta kadete mailakoak (15-16 urte). Eskualdeko ordezkari zari dagokionez, Baztango Basaburua taldea maila eta proba guztietan arituko da, proba konbinatueta eta sokatiran. Igantzik, berriz, kimuen eta haurren mailan parte hartuko du, proba konbinatueta eta sokatiran. Eta Arantza, konbinatueta arituko da, haurren eta kadeten mailan. Otsailaren 25ean egin zuten lehen saioa Arbizun, eta heldu diren igandeetan, Larraintzarren, Berroetan eta Igantzin eginen dituzte saioak. Finala martxoaren 25ean Berriozarren izanen da.

AGENDA egunez egun

IKASTAROK

ELIZONDO

Martxoaren 3an eta 5ean, erretzeari uzteko ikastaroa, Osasun etxean Amaia Vazquezekin, Baztango kulturgintzak antolatuta.

BERROETA

Martxoaren 10ean, «Frutarbolen kimaketa» izeneko ikastaroa Txipeneko baratzean, Xabi Akizurekin, 10:00etan.

HITZALDIAK

GOIZUETA

Martxoaren 1ean eta 8an «Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa» hitzaldia, eskolako jangelan.

BERROETA

Martxoaren 10ean «Gure bazterrak» hitzaldia Mikel Belaskorekin, 18:00etan.

TAILERRAK

BERROETA

Martxoaren 9an eta 10ean esku pilota tailerra Mikel Ustarizerekin.

IPUIN KONTALARIAK

BERROETA

Martxoaren 9an, 10 urtetik behetikoentzat ipuin kontalaria, 17:00etan.

IGANTZI

Martxoaren 9an, «Bazen behin...neska buru gabe bat...» ipuina kontatuko dute Igantzin, 19:00etan.

DANTZA JAIALDIA

BERA

Martxoaren 3an, Escena dantza jaialdia. «Danzas del Mundo» ikuskizuan eskainiko du Danzas del Mundo konpainiak, 19:00etan Berako Kultur Etxean. Sarrera: 5 euro. 10 sarrera zozketatuko dira 948635458 deitzen dutenen artean.

TELEBISTAKO TXOKOA



IRABAZLEA ESTIBALIZ MAÑERU Osasunako kamiseta Lesakara joan zen

Otsailaren 9an erreportajearen atalean Osasuna hartu genuen mintzagai, eta horren barne, Joshe Viela. Osasunako prestatzaile fisikoak Taxoareko instalazioak erakutsi zizkigun eta Reyno de Navarra futbol zelaiko ateak zabaldu zizkigun klubak. Gisa berean, Osasunako peñen berri eman zizgun Francis Urrutiak, Baztango Gorriek peña edo kirol-lagunarteko kideak. Osasuna futbol taldeak kamiseta bat oparitu zuen gure ikusentzuleen artean zozketatzeko. Aste osoan zehar kamiseta eskuratzeko interesa zuten zaletuen telefono deiak hartu genituen, eta zozketaren ondotik, irabazlea Le-

sakako Estibaliz Mañeru izan da. Milesker parte hartu duzuen guztioi eta zorionak Estibalizi. Argazkian Estibaliz bera ageri da, Osasunako kamiseta eskuan duela Goizalde Urdanpilleta gure lankidearekin.

INAUTERIEKAKO DVD ETA BIDEOAK SALGAI

Aitzineko alean aipatzen genizuen bezala, dagoeneko pasatuak ditugun inauterietako DVD eta bideoak salgai jarri ditu Ttipi-Ttapa Telebistak. Eskualdeko hainbat herritan hartutako irudiak prest daude. Interesatuak 948 635458ra deitu behar dute.

DISKAK



Txikia izanik...

BATZUK

ELKAR

Badira haur kantu batzuk, urteak joan, urteak etorri, iraun egiten dutenak, klasiko bihurtu zaizkigunak. Kantu horiek, duten musikalitatearengatik, duten erritmoagatik eta ederrak direlako, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, eta handituta ere beren oihartzuna uzten dute haurtzaroko oroitzapenetan. Kantu klasiko horiek jaso dituzte bilduma honetan, Pintto-pintto, Txikia izanik, Jon Braun, Lehenengotxo hori... Haurren musika erreperitorioan bere tokia irabazia duten kantu guztiak. Kantuon egileak ere aski ezagunak dira haur musikan: Xirula Mirula, Takolo, Pirritx eta Porrotx, Txirri, Mirri eta Txiribiton, Hik Hasi, Oskorri... Musika gain, CD-Rom bat dator atxikita, kantu horietako batzuen koreografia eginez, irudi animatuen bitartez haurrek dantza eta kantua batera ditzaten.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Otsailaren 9tik otsailaren 16ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 41,00 euro (=)

Zerri gizena
1,022 euro kiloak. (+0,035)

Zerramak:
0,470 euro Kg/bizirik. (+0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: E/kg. Kanal Extra 3,98 (=)

1.koa 3,73 (=)

2.koa 3,53 (=)

Urruxak: E/kg. Kanal Extra 4,10 (=)

1.koa 3,85 (=)

2.koa 3,62 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 276,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 195,00 (=)

Zaldikoak: E/k
Sortuberriak: 2,98/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: E/k
6-8 kilokoak: 5,20/5,90
8-10 kilokoak: 4,10 /4,80

JAKIN BEHARREKOAK

Hipoteka-Legearen eraberritzea ez dela nahikoa salatu du Irachek

Halere, kontsumitzaileen intereseei kaso egiten zaiela iritzi dio

Hipoteka-Legearen aitzineko eraberritzea 1994an egin zen, eta geroztik mota honetako maileguen eskaerak nabarmen egin du goiti. Horrek Legea sakon berritzea eskatzen zuen Irache Kontsumitzaileen Elkartearen ustetan. Merkatuaren baldintzek, etengabe goiti doazen interes tipoek eta pisuen prezioa altuek malgutasun handiagoaren beharra erakusten zuten. Lege berriarekin, baina, bankuen arteko konpetentzia haundituz, familiak hipoteka-mailegua aldatzeko aukera izanen lukete.

Halere, eraberritzea ez dela behar adinakoa dio Irachek: «ez da hain eskasa, arinki bada ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen intereseei kaso egiten zaiolako, baina ez da nahikoa».



Iracherentzat Hipoteka-Legea berrituak ez ditu familia aunitzen ekonomia arazoak konpontzen.

LEGEAREN OINARRIAK

• Legea berritua martxoan sartzekoa da indarrean, baina aspaldian zalantza aunitz dagoela aipatu du Irachek.

• Hipoteka aitzinetik ezeztatzen bada gehieneko komisioen murrizketa finkatzen du: interesak %1etik %0,5era jaitsiko dira, baina interes aldakorraren arabera hipoteken kasuan bakarrik. Finkoetan, ordea,

portzentaia horrek gorantz egin dezake mailegua ezeztatzerakoan, interes tipoak hipoteka kontratatu zenean baino altuagoak badira.

• 65 urtetik gorako jendeak edo menpeko pertsonak bakarrik sinatu dezaketen hipoteka da, eta finantza-entitateak etxearen balioaren arabera ematen duen errenta agortuta ere, hipotekaren jabeak etxebizitza horretan jarraitu

dezake bizitzen.

• Dagoeneko indarrean dauden maileguentzat ez da baliagarria, eta zenbait familiak interesen igoera dela eta ordaintzeko arintzeko ez du neuririk aurreikusten.

• Etxebizitzak jokoan segitzen du, bankuarekin egon daitekeen zorra tarteko etxebizitza galtzeko arriskua ez delako baztertu.

Beraz, Irachek jakinarazi duenez, alde onak izan arren, motz gelditu da. Horregatik, bankuz aldatzeko zentzuzkoak gastua duten kalkulatzeko aholkatu du kontsumitzaileen elkarteak, «*konpentsatu dezakeelako*»; eta lehenbizikoz etxe bat hartu behar dutenei, banku ezberdinak konparatzeko ohartarazi die, baldintzarik onenak edukitzeko.

AGENDA egunez egun

MENDI ATERALDIAK

ZUGARRAMURDI

Martxoaren 11n Baztango megalitoen ibilbidea antolatuta Atxuria mendi taldeak.

SUNBILLA

Martxoaren 3an Iruñea-Xabier mendi ateraldia, Ulibeltzak mendi taldeak antolatuta.

Martxoaren 11n Gorostietalreber mendi ateraldia Ulibeltzak mendi taldeak antolatuta.

BAZTAN

Martxoaren 4an bartz milak, Baztango Mendigoizaleak antolatuta.

Martxoaren 11n Burdindogira ateraldia antolatuta du Baztango Mendigoizaleak mendi taldeak.

HAUR KANTARI JAIALDIA

ELIZONDO

Martxoaren 3an Haur Kantari Jaialdiko lehen saioa Lur aretoan, 18:00etan.

KANTU AFARIAK

BERROETA

Martxoaren 10ean kantu afaria Pello Zabaltza eta Oskar Estangarekin, 20:00etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Martxoaren 3an, Makalaren Boon Shaka Laka Lur diskotekan, 01:00etan. Sarrera: 8 euro.


Martxoaren 10ean, Lur D Jotak eta Korrika besta Lur aretoan, 01:00etan. Sarrera: 8 euro.

ANTZERKIA

LESKA

Martxoaren 4an, «Bakarrik egiten ez zekien printzesa» haurrentzako antzerkia ikusgai Kasinon, 17:00etan.

LIBURUAK



Marearen erraietan

J. Inazio BASTERRETXEA
ALBERDANIA, 2006

Fikzio gauzagarria duzu eskuartean. Hamar pertsonaien ginetik, hiru emakume eta gizon bat dira protagonista nagusiak. Bizitzak hurbildu, eta bizitzak berak urrundu ditu. Gizakiaren metamorfosi animikoaren lekukotasuna ageri da batetik; bertetik, une ilunei neurria hartzea. Iragana, oraina eta etorkizuna nahasten dira lerro artean, bizitza eta heriotza nola. Bilbon eta Bartzelonan kokatu ditu autoreak bere pertsonaiak. Banan-banan

aurkeztuko dizkizu hasieran, modu beregainean jardungo dute ondotik. Ez da film bat, halere badu narrazio zinetografikoaren usaina. Amets bat da nobela hau, amets gauzagarria. «*Demagun Ravelen musikak gora egin duela, konpas luze horietako batean dagoela, marrubizko oihal bat dela musika-notei eusten dien pentagrama, eta airera askatu duela Iruneren ilea orkestrak isurtzen duen graziaren dohain miragarriak*».

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 E ordaindu behar da. Ttiipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 8 E Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazioa eta zerbitzuen berri ematen da. Ttiipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- Apartamentu eta pisuak salgai.
- VPO pisuak salgai.
- Terreno urbanoak salgai.
ARANTZA.
- Borda eta etxeak salgai.
ARRAIOZ.
- Pisu eder bat salgai.
BERA.
- 2 pisu salgai.
LESACA.
- Pisuak eta terrenoak salgai.
DONEZTEBE.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurraekin salgai.
- Etxeak eta bordak salgai.
LEITZA.
- Pisuak salgai. Aukera ona!!
BAZTAN.
- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

PROMOZIO BERRIAK:
IGANTZI. AZKEN pisua trasteroarekin eta aparkalekuarekin salgai.
ELIZONDO. VPOko pisuak trastero eta aparkalekuarekin salgai.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai Ezte-gara pasealekuan. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainu-gela. 90m². ☎ 629612614.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

ELIZONDO. 45 m²ko lokala errentan emateko. Denda eta bertez negozioa jartzeko modua. ☎ 626 021643.

BEASAIN. Herri erdialdean etxebizitza moduan egokitutako eta portaletik sarrera daukan beheko solairua salgai. Biltegi moduan edo bertzelakoetarako ere erabilgarria. ☎ 686 062963.

BULDAIN INMOBILIARIA


LEITZA:

Patxi Arrazolan 3 logelako pisua salgai, trastelekuarekin. 23.500.500 Pta.

Tfnos: 948 510 534 bulegoa

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak



Albora, 67-8 (LESACA)
bordaplador@telefonica.net
Tfnos/Fax: 948 637 548
Mug.: 609 477 277

LANA

301 Eskariak

BERA. Emakumea eskaintzen da edozein lanetan aritzeko (etxeko lanak, haurrak edo adinekoak zaintzeko...). ☎ 610 051320.

Komertzial bezala Bortzrietan lan egiteko pertsona bat eskaintzen da. ☎ 618 188300.

Ingeniari teknikoak topografo lanak egiten ditu, lur neurketak eta abar. ☎ 628 123026.

Emakume euskalduna eskaintzen da Baztan inguruan etxeko lanak orduka egiteko. ☎ 616 164857.

Emakume batek Bera inguruan lan egiten luke (sukaldean, fregatzen...) ☎ 628 128189.

Administratibo euskaldunak, 10 urteko esperientziarekin, lan egiten luke Baztan, Malerreka edo Bortzrietan. ☎ 696 361280.

Baztango promoción inmobiliaria

SALMENTA:

BERA: 84 m²ko pisua herriaren erdian, 2 logela, bainu-gela, egongela eta sukaldia. Garajea. Sartzeko moduan.
BERA: Bi familiarako etxebizitza pisua, 3 logela, 2 bainu-gela, sukaldia eta egongela handia tximiniarekin. Garajea.
BERA: 95, 70 eta 40 m²ko lokalak karrikan bertan.
ARANTZA: 76 m²ko pisua, 3 logela, egongela, sukaldia, bainua. Trastelekuak etxe gainean. Baratzia. Bista onak.
DONEZTEBE: Erdigunean: bi familiarako etxebizitza, 72 m²ko pisua eta 72 m²ko bajera.
ELIZONDO: Solairu bakoitzeko 136 m² dituen baserria eta 27.000 m²ko lur eremua.

LUR EREMUAK:

BERA: 3.188 m²ko eremua familia bakarreko etxearentzat.
LESACA: Famili bakarreko etxe 1-2 egiteko lurra, argia eta ura.
SUNBILLA: Famili bakarreko etxe egiteko lur eremua.
ERRATZU: Famili bakarreko etxe egiteko 2.724 m²ko eremua.

ALOKAIRUAK:

BERA: Lokal ezberdinak, karrikan bertan.

ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXEAK, PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

LANA

302 Eskaintzak

BERA. Frantsesa pixka bat dakiten neska eta mutil bat behar dira Larungo benta batean, 6 hilabetez lan egiteko. ☎ 948 631100-948 630794 (gauetz).

IRUN. Langileak behar dira jatetxe batean. Autoa edo motorra beharrezkoa. ☎ 675 711731.

OITZ. Oizko ostatuan fregaderan igande eta jai egunetan lan egiteko pertsona behar da. ☎ 948 451951.

Zerbitzaria behar da asteburu eta udarako. ☎ 948 630709.

ELIZONDO. Ileapaindegi batean lan egiteko lagun bat behar da. ☎ 948 452467.

BERA. Jatetxe batean sukaldaria behar da. Ordutegia aukeran: 10:00etatik 17:00etara edo 19:00etatik itxi arte. ☎ 654 385363.

Emakumea eskaintzen da lanerako, sukaldean, ontziak garbitzen... ☎ 606 643262

MOTORRA

501 Salerosketak

Honda HR-V 1.6cv 4x4 autoa salgai, 4 urtekoa. Eki-mendu osoa, oso egoera onean. Mantenimendu liburuarekin. ☎ 639 448981.

Volkswagen Passat High-line salgai. 2002koa, egoera onean. ☎ 607 853208.

Opel Astra beltza salgai, 2000 DTI, 100 zaldikoa. ☎ 649 919557.

Traktorearen egurrezko karrua salgai. Deitu edozein ordutan. ☎ 652 757773.

Citroen ZX salgai. Egoera onean. ☎ 660 081754.

Ford Focus familiarra salgai. Diesela, 52.000 km eta bi urte eta erdi. ☎ 658 743363.

Golf TDI 115 CV salgai, 6 urtekoa eta 120.000 kilometroekin. Klimatizadorea, aluminiozko llantak, ordenagailua... ☎ 680 343337.

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa eta Gran Cherokee 5 atekoa (2003koa).

SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN



**VENTANAS
ARAMBURU**

Ongizate termiko eta akustikoa
Aluminioa egur koloretan



Gabiria, 42 IRUN
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

MOTORRA**502 Tailerrak**

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIETAN
ESKAINZA ZABALA
(6-12 hilabetekoak)**

Clio, Modus, Kangoo, Megane,
Megane Grand Tour, Scenic,
Laguna, Laguna Grand Tour,
Espace.

BIGARREN ESKUKOAK

Opel Astra 2.0, Suzuki Vitara
1.6., Citroën XSara 2.0 D,
Laguna Grand Tour 2.2 DCI
2002. urtekoa, Kangoo 1.9 D
2001koa (gibelego alde itxia).

ANIMALIAK**602 Salerosketak**

Mutur gorriko bi ahari salgai, bat adarrekin eta bertzea adarrik gabekoa. ☎ 948 451696 (20:00etatik aitzinera)

127 ardiren eskubideak salgai. ☎ 948 634083 (20:00etatik 22:00etara).

Lau urteko zezena, limousina arrazakoa, saldu edo trukaturako nuke. ☎ 639 940326.

29 ardiren subentzia salgai. ☎ 948 510277.

DENETARIK**701 Galdu-aurkituak**

3 metroko eskailera bat galduta da Lizuniaga eta Kauleko bidean. ☎ 948 625248.

Ehizako zakur gazte bat aurkitu da Lesakan. Zuria orban beltzekin, eta hanka motzal ditu. ☎ 635 725271.

DENETARIK**702 Salerosketak**

Bigarren eskuko trikitiza erosiko nuke, prezio onean. ☎ 616 382849.

Yamaha markako bozgorailua salgai. ☎ 699 122815 (20:00etatik aitzinera).



**ETXALARko
HERRIKO ETXEA**

**HERRIKO OSTATU ETA JATETXEA ERRENTAN
ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA**

Udal honek lehia-keta irekirako deia egiten du Herriko ostatu eta jatetxea errentan adjudikatzeko:

- Urteko kanona, hasierako prezio gisa: 3.720,00 euro gehi BEZa.
- Kontratazio epea: Lehiakideak eskaintzan zehaztu behar du. Gehienez ere hamar urterako izanen da eta gutxienez bost urterako.
- Behin behineko fiantza: 600 euro.
- Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza Pleguan adierazten direnak.
- Proposamenak aurkezteko epea: 2007-03-14ko 14:00ak arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta Nafarroako Kontratazioaren atarian. www.navarra.es/home_es/Catalogo+de+servicios/Contrataciones/Anuncios+de+licitacion.htm

Ostalaritzako tresneria salgai jatetxea itxi behar delako (plantxa, sua, mahaiaik...). Tresneria ikusgai dago nahi duenarentzat. ☎ 658 743364.

HARREMANAK**801 Agurrak**

Jaienez irigoienez aranztarrak 23 urte beteko dituzte martxoaren 5ean. Aunitz urtez eta bi muxu haundi zure lagunen partetik. Zahartzen ari ote gara? Ez, ez, hobegin gaude!

Zahartzen ari ote gara? Ez, ez, hobegin gaude!

Arantzako **Maidar Etxaguek** urteak beteko dituzte martxoaren 16an. Aunitz urtez zure kuadrillako partetik.

Lesakako **Aitor Arotzenak** martxoaren 16an urteak beteko dituzte. Nahiz eta gurekin ez egon, oroitu guri gosaria ekartzeaz.



KLINIKA ANBULATORIOA BEGIETAKO MIKROKIRURGIAN
OFTALMOLOGIA ZENTRUA

Oftalmologiaren beste ikuspegi bat

- 1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
- 1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
- 1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
- 2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia implante egokiorrak erabiliz
- 2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
- 2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
- 2006 Malko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Eskiroz, 31 · B solairuartea · 31007 IRUÑA · Tfnoa: 948 199 999
Juan de la Cruz, 5 · TEKNIA Zentrua · 20300 IRUN · Tfnoa: 943 660 150
Ferrete Dal Baiza, 6 · ZA Layatz II · 64500 DONIBANE LOHIZUNE · Tfnoa: (0033) 559 51 84 00(FR) - 902 209 299 (SP)

IRUÑA DONIBANE LOHIZUNE IRUN

Argazki soila: 4 € . Bikoitza: 8 € . Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 € ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net




Irueño **UGUTZ ETXEBERRIA IRIGOIENE** 2 urte bete ditu otsailaren 24an. Muxu haundi bat ebeko altxorarentzat familia guztiaren partetik.



Iratxe **LOYARTE PETRIKORENA** igantziarrak 3 urte bete ditu otsailaren 19an. Zorionak anaia Patxi, atxa, ama, osaba, izeba eta amatxiren partetik.



Goiatz **JAUREGI MARTIN** etxalartarrak, urteak beteko ditu martxoaren 1ean. Zorionak familiaren partetik, bereziki Eñauten partetik. Ez izan hain *sacafallos!!!*



Andoni **IRIBARREN INDABURUK** 8 urte bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak familia guztiaren partetik.



Izaro **IRIBARREN INDABURUK** 12 urte egin ditu otsailaren 26an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Eneko **ZELAIETA LAZKANO**. Martxoaren 7an Txaparrabaitako gixonak 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuak, Saioa, attato eta amatoreen partetik.



Garazi **UBIRIA GARMENDIAK** otsailaren 24an bi urte bete ditu. Zorionak eta bi muxu haundi ataxi, amatxi, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



Garazi **UBIRIA GARMENDIAK** bi urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak eta bi muxu haundi familiaren partetik.



Arizkuno **ANTON FERNANDEZ BIDGAINEK** 2 urte bete ditu otsailaren 19an. Zorionak eta bi muxu haundi Arizkuno eta Almandozko familiaren partetik.



Kottok 41 urte beteko zituenean martxoaren 3an. Zorionak zauden lekura eta muxuak maitasunez etxekoan partetik



Elgorriagako **UNAI** eta **FRAN IBARRAK** martxoaren 3an eta 9an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana amatxo eta emaztearen partetik.



Aurtizko **AVELINARI** zorionak urteak bete dituelako. Segi beti bezain alai, martxosa, eskuzabala eta amona goxua. Muxu bat, Aitz, Hodei, Haizea, Unax eta Ugaitz.



Mikel **LARRETXEALUKANBIOK** 9 urte beteko ditu martxoaren 3an. Zorionak Arantzako familiaren partetik, eta bereziki aita, ama eta Aneren partetik, eta Tsarpa.


ttipi ttapa harnidetzak 07
tarifa berriak

ESPAINIA	_____	32 €
EUROPA	_____	52 €
AMERIKA	_____	110 €

Baxtan, Bertizarana, Urdazubi,
Malerreka, Leitza _____ 26 €
Sara, Senpere, Azkain La Poste _____ 52 €
Sara Edantegian eta okinekin _____ 40 €
Bortziriak, Areso, Goizueta eta Arano _____ DOAN

www.ttipi.net

Tfnoa: 948 635 458 • Faxa: 948 635 457
info@ttipi.net • publi@ttipi.net



Javier **SEIN GOÑI** ittundarrak 10 urte bete ditu otsailaren 25ean. Aurtiz urtez familiaren partetik!



Joanak 12 urte bete ditu otsailaren 23an eta Maienak 4 urte beteko ditu martxoaren 3an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Mattin **LEKUONA OIARZABAL** lesakarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak maita familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat.

D EREDUKO ESKOLA PUBLIKOAN

euskaraz bizi den eskolan

matrikula ezazu euskaraz

tel. 943 30 35 04
948 22 13 80
www.sortzen-ikasbatuaz.org

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK BERRITUKO DU:

BEGIRALEEN LAN-POLTSA

LANPOSTUA: *Begirale arduraduna*

Bete beharrekoak:

- Formakuntza akademikoa: Batxilergoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa.
- Berariazko formakuntza: Aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua.
- Euskaraz jakitea (hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea).

LANPOSTUA: *Begiralea*

Bete beharrekoak:

- Formakuntza akademikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Euskaraz jakitea (hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea).

ZERRENDAREN ERABILERA:

Zerrenda mankomunitatearen eskaera asetzeko erabili da, eta, bereziki, udaleku irekietarako begiraleak kontratazeko.

ESKAERAK:

- Eskaerak martxoaren 30eko 12.00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.
- Aurkeztu behar den dokumentazioa eta gainerako xehetasun guztiak deialdian irakur daitezke.

Deialdia eskuratzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara

Arantzan, 2007ko otsailaren 23an

Mankomunitateko lehendakaria, Vicente Arotzena Biurraena

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Telefonoa: 948 634 125 E-posta: bortziriak@euskalnet.net

Helbidea: Herriko Plaza, 7 - 31790 ARANTZA



BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA



MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.k behar ditu,
Zubirin duen lantegirako:

3 PRODUKZIO-LANGILE

Prestakuntza: LH2 mailakoa.
Ez dira beste izangairik baztertzen.

INTERESATUAK BIDALI CURRICULUM VITAE,
ahalik eta abudoen, honako helbide honetara

MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.
Giza Baliabideetako Arduradunarentzat
Orreaga etorbidea, z/g
31630 ZUBIRI - Nafarroa



martxoak 3

MAKALA

PRESENTS
**BOOM
SHAKA
LAKA**



01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

martxoak 10

KORRIKAJAIALDIA + LURDJOTAK



01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

martxoak 17

MIGUEL ANGEL YELMARIACHI DE LA CANTINA

00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

martxoak 24

BETAGARRI



00:30 9€ aurretik 11€ takillan

martxoak 31

BANDDELPALO



00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

ZOZKETA

"Ibiza" baten zozketa. Eskura itzazu zure boletoa 3:00ak baino lehen iristean. Astebururo zure sarrerakin batera. (*)

